

LEKUAN LEKUKO

anboto



DURANGALDEKO KOPA

Zortzi erronka, tontorrik tontor

Durangaldeko Koparen bigarren aldia aurkeztu dute.

Maiatzaren 23an hasiko da, Mallabian.

Aurten proba laburren txapelketa ere egongo da. / 2-3

Sorginen Lasterketa.

KONTZERTUA

**"Berrizko kontzertuan
Xabier Amuriza ere
izango dugu oholtzan" / 17**

Mikel Markez
Musikaria



ERRENTA AITORPENA / 13



JAN ALAI

**Bi astez hanburgesa
berritzaileak
probatzeko aukera
dago Zornotzako Jan
Alai lehiaketan / 6**

AZOKA

**Garaiko Landare
eta Lorezaintza
azokak kolorez beteko
ditu herriko kaleak,
domekan / 5**



PILOTA

**Durangoko frontoiak
buruz buruko pilota
txapelketako partidu
bat hartuko du
apirilaren 25ean / 21**

APIRILAK 17
MAIATZAK 3

Jan al'ai

Bur
gE's



I. HANBURGESA
TXAPELKETA





Kopako antolatzaileak eta udaletako alkate eta ordezkariak Elorrioko udaletxean egindako aurkezpenean.



Kopako eta mendi lasterketako antolatzaileak azalpenak ematen.

Lasterketa laburrek euren txapelketa propioa izango dute Durangaldeko Kopan

Sugaar Kopa deituko da; distantzia laburragoak "duintzeko" hartu dute erabakia

Joseba Derteano DURANGALDEA

Durangaldeko Koparen bigarren aldia bueltan da eta nobedade esanguratsu batez dator: distantzia laburreko lasterketek euren txapelketa eta sailkapena izango dituzte, Durangaldeko Sugaar Kopa izenagaz. Distantzia luzeko proben Kopak bere horretan jarraituko du, jakina, iazko arrakastaren ondoren. Kasu honetan, izen berriagaz bataiatu dutela da nobedadea: Durangaldeko Mari Kopa. Beraz, aurtengo kopa biek Anboto mendiaren ingu-

ruko pertsonaia mitologiak izango dituzte zaindaria.

Sei mendi lasterketak lehenetik zituzten proba laburrak, eta Zornotzako Aramotz eta Mañaritik Atxetara lasterketek aurten sortu dituzte. Horrela, zirkuituko proba guztietan egongo da distantzia laburragoa aukeran.

Txapelketa berriagaz korrikalari gehiago parte hartzea animatuko direla uste dute. "Ibilbide laburrek jendea lehenengo pauso hori ematen laguntzen diotela pentsatzen dugu", adierazi zuen Mañaritik Atxetara

lasterketako Ekaitz Goenagak Kopa aurkezteko Elorrioko udaletxean egindako ekitaldian. Eskari bati erantzuteko modua ere bada. "Lasterketa laburren izen ematea luzeena baino lehenago betetzen zela ikusten genuen. Hasiberrientzat eta gehiagorentzat erakargarriagoa zen eta lasterketa laburrak sortzea prozesu natural bat izan da; bide beretik, baita Sugaar Kopa eratzea ere", gehitu zuen Asto Trail lasterketako Gaizka Barrainkuak. Gainera, distantzia laburragoa "duintzeko" modu bat ere bada. "Las-

terketa laburrak beti egon dira apur bat gutxietsita. Errekonozimendua emateko modu bat ere bada", gaineratu zuen Zaldutrail probako Nora Narbaizak.

Maiatzetik urrira

Kopa maiatzean hasi eta urrian amaituko da. Lasterketak lauko multzo bitan banatu daitezke: abuztuko geldialdiaren aurrekoak eta ondorengoak. Mallabiko 7 Pago, Berrizko Amaraune, Zaldibarko Zaldutrail eta Garaiko Asto Trail daude maiatzetik uztaile bitarteko lehenengoan; irailetik aurrera lehiatuko diren Mañaritik Atxetara, Atxondoko Sorginen Lasterketa, Zornotzako Aramotz eta Elorrioko Aldapegara daude bigarrenean.

Proba bitan puntu gehiago

Gutxienez lau lasterketa amaitu behar dira sailkapen nagu-

sietan sartzeko. Puntuazio sistema lehenengo 30etara zabaldu dute; iaz aurreneko 15ak ziren. Gainera, Asto Trailen eta Aramotzen %20 puntu gehiago eskuratzeko aukera dago. Horrela, 100 barik irabazleak 120 puntu batuko ditu, eta bigarrenak 108, eta ez 90. Erabaki honez, besteak beste, lasterketa bietarako izen ematea bultzatu gura dute.

Sariei dagokionez, Kopa bietako lehenengo bost sailkatuek izango dituzte sariak. Mari Kopako irabazleak 500 euro jasoko ditu, bigarrenak 400 euro, hirugarrenak 300, bigarrenak 200, eta bosgarrenak 100.

Sugaar Kopari dagokionez, Kopako irabazleak 250 euroko saria jasoko du, bigarrenak 200 eurokoa, hirugarrenak 150ekoa, laugarrenak 100ekoa eta bosgarrenak 50ekoa.

ANBOTO Durangaldeko Kopako babesle izango da aurten ere

J.D. DURANGALDEA

Durangaldeko Kopa maiatzaren 23an hasiko da, Mallabiko 7 Pago lasterketaz. Mallabitarak, bisitariak, antolatzaileak eta ehunka korrikalari batuko dira bertan, eta baita ANBOTO ere, Durangaldeko euskarazko komunikabideak aurten ere gertu-gertuko jarraipena egingo dio-eta Kopari. Ekimeneko babeslea izango da eta ANBOTOren arku arrosa helmuga guztietan egongo da.

ANBOTOren webgunean (anboto.org) Durangaldeko Kopa izeneko atal berezian batuko dira Kopari buruzko argitalpen

guztia. Bertan, askotariko materiala egongo da eskuragarri, hala nola parte hartuko duten korrikalarien zerrenda, lasterketen kronikak eta ehunka argazki osaturiko galeriak.

Kopako webgunea

Durangaldeko Kopak bere webgune propioa ere badu: durangaldekokopa.com. Aurtengo kopa bietako sailkapen nagusiak hantxe ipiniko dituzte. Iaz Irazu Aranburu mallabitarra eta Itsasne Urkiaga zornotzarra izan ziren irabazleak. Lortuko ote dute aurten berriro txapela irabaztea?



Korrikalari bi Mañaritik Atxetara lasterketan ANBOTOren arkupetik igarotzen.

Maiatza	Ekaina	Uztaila	Uztaila	Iraila	Urria	Urria	Urria
23	20	11	18	19	4	17	24
7 PAGO (Mallabia)	AMARAUNE (Berriz)	ZALDU TRAIL (Zaldibar)	ASTO TRAIL (Gara)	MAÑARITIK ATXETARA (Mañaria)	SORGINEN LASTERKETA (Atxondo)	ARAMOTZ (Zomotza)	ALDAPEGORA (Elorrio)
MARI 25 km 1400m+	MARI 21,5 km 1150m+	MARI 20 km 1200m+	MARI 26 km 1300m+	MARI 22,4 km 2000m+	MARI 21 km 1750m+	MARI 22 km 1300m+	MARI 26 km 1700m+
SUGAAR 16 km 750m+	SUGAAR 10 km 500m+	SUGAAR 14 km 730m+	SUGAAR 16,5 km 700m+	SUGAAR 13,5 km 1100m+	SUGAAR 11,7 km 890m+	SUGAAR 12 km 650m+	SUGAAR 15 km 850m+

TALENTU PROFESIONALA
eskolatik - industriara

Oihan Gorrotxategi Molero

Eragiketa-teknologiaren Inguruneetako Zibersegurtasuna
Especializazio Ikastaroa

Eragiketa-teknologiaren Inguruneetako Zibersegurtasunaren Inguruko Especializazio Ikastaroan diharduzu. Zeintzuk izan dira especializazio ikastaro hau egiteko izan dituzun arrazoiak?

Bigarren hezkuntza bukatu ostean, argi izan nuen gustuko nituen gaien inguruko ikasketak burutu nahi nituela eta informatika gustuko nuenez, mikroinformatika erdi mailako ziklo bat egitea erabaki nuen Arizmendi Ikastolan. Oso esperientzia aberasgarria izan zen eta handik goi mailako ziklo batera salto egin nuen, Sareko Informatika Sistemen Administrazioa (ASIR) ikasi nuen Mondragon Goi Eskola Politeknikoan (MGEP). Ziklo horretan nerbioa, zibersegurtasunaren inguruko ikasgai bat eduki genuen eta horrek arreta eman zidan, eta ikasturte horretan gai horren inguruko ezagutzak handitzeko asmoarekin, especializazio ikastaroa egitea erabaki dut. **Ikasketak DUAL intentsio modalitatean burutzen ari zara, nolakoa izan da esperientzia hau?**

Oso ona. DUAL programak OrbiK enpresan lan egiteko aukera eskaini dit, eta azken 3 urte hauetan ikasketak eta lana uztartzeko aukera izan dut. OrbiK enpresak zibersegurtasunaren inguruko balibideak garatu eta eskaintzen ditu eta honek ere eragina izan du zibersegurtasunaren especializazio ikastaroa egiteko garain. Niretzako onuragarri izateaz gain, enpresarako ere onuragarri izan da aukera hau.

Zer beste onura ekarri dizkizu DUAL programak?

Dualak eskaintzen dituen onurak ugariak dira. Lehenik eta behin enpresa mundura gerturatzeko zaitu eta enpresa bat barutik ezagutzeko aukera eskaintzen dizu. Hau oso garrantzitsua da, norberaren buruan konfiantza irabazteko balio baitu, enpresan lan egiteko gaitasuna duzula ikus dezakezu. Beste aldetik, enpresa mundurako sarrerak aukera handiak eskaintzen dizkizu zure gaitasuna erakutsi eta enpresa horretan etorkizunean lanean jarraitzeko aukera izateko. Nire kasuan behintzat hala izan da, DUAL programari esker etorkizunean OrbiK-en jarraitzeko aukera izango dut. Azkenik, soldata ere aipatu nahiko nuke, gaztea izanda, diru iturri bat izateak asko laguntzen baitzuten independentzia ekonomiko handiago bat izateko garain.

Zer plan dituzu etorkizunerako?

Especializazio ikastaroa amaitu ostean enpresan buru-belarri lan egiten jarraitzea gustatuko litzaidake. Oso gustura nago OrbiK-en, oso lan-giro ona daukagu. Dasthorad-en diseinuan lan egiten dut eta lan honek nire kreatibotasuna garatzeko aukera ematen dit, askatasun osoa ematen didate nahi ditudan diseinuak egiteko eta asko disfrutatzen dut nire lanarekin. Dena den, etorkizunean ikasketak gehiago egitea ere ez dut baztertzeko, ikasketak prozesuek pertsona bezala garatzeko aukera eskaintzen baitzute.

ATE IREKIAK

Maiatzak 9

11:00etan

Eman izena!

MGEP:
664 298 683



Parke berriak itxura hau hartuko du gutxi gorabehera. DURANGOKO UDALA

Parke berri bat atonduko dute Durangoko San Roke auzoan

Udalak dioenez, parkeak aire zabaleko frontoi txiki bat, saskibalo kantxa, berdegunea eta atsedenlekuak izango ditu

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko Udalak parke berri bat egingo du San Roken. Aisialdiari eta kirolari begirako eremua izango da eta Bustintza kalearen ondoan egokituko dute, auzoko aparkalekuaren ondoan. Eremuak aire zabaleko frontoi txiki bat, saskibalo kantxa, berdegunea eta atsedenlekuak izango ditu, eta 375.000 euroko inbertsioagaz egingo dituzte lanak, hainbat urtetako finantziarioagaz. Diseinuari dagokionez, zuhaitz autoktonoak lehenetsiko dituzte, eta zoladura

iragazgarria ipiniko dute elementuen oinarrian. Bestalde, udalak iragarri du proiektua parte hartze bidezko aurrekontuen emaitza dela. Mireia Elkoiriribe alkatearen berbetan, Bustintza kalea "espazio zabal eta moldakorra" izango da parke berriari eskerrak, "herritarren ongizatea eta bizikidetzat bultzatzeko" eremua. Obrak ekainean lizitatu gura dituzte. Behin lanak hasita, sei hilabeteko epean amaitzea itxaroten dute.

Bestalde, udalak herriko parkeei eta berdeguneei loturiko

plana aurkeztu die herritarrei: Babesleku Klimatikoen Sarea. Kontua da udalak egokitzapen neurriak hartu gura dituela herritarrek klima aldaketaren eraginetatik babesteko. Hori horrela, eremu freskoak identifikatu gura dituzte herritarrekin: parkeak, berdeguneak, udal eraikinak, elizak eta museoak.

Herri "kaltebera"

2023ko ekainean, Durangoko Udalak Klima eta Energiaren Plana onartu zuen, eta egoeraren azterketa egitea erabaki. Azterlan horrek erakutsi duenez, udalerrriaren kalteberatasuna "ertaina" da, baina Durangoko Autonomia Erkidegoko udalerrien %80 baino positio txarragoan dago. Besteak beste, 8 metro karratu berdegune dago biztanleko.



Mugimendu feministak zaintza sistema publikoa aldarrikatu zuen 2023ko greban.

Durango mahai-inguru bat egingo dute zaintza-esperientziak aztertzeko

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko zaintza komiteak mahai-inguru bat egingo du apirilaren 23an, eguenean, Euskal Herriko hainbat udalerritako zaintza-esperientziak gertutik ezagutzeko. Jardunaldia San Agustin aretoko sarreran egingo dute, 18:30ean. Hiru esperientzia ezagutzeko dituzte: Aretxabaletako zentro soziosanitarioren, Hernaniko zaintza sistemakoa (Gipuzkoa) eta etxeko zaintza langileen kolektiboarena. Durangoko zaintza komiteak dioenez, Aretxabaletakoa lehenengoetariko esperientzia izan da osasun, gizarte eta zerbitzu komunitarioak aldi berean integratzen, eta Hernaniko kideek

sistema propioa sortu dute zaintza komunitarioak udalerriri horretako auzoetan bultzatzeko.

Ereduak ekarri guran

Durangoko zaintza komiteak ispilu legez erabili gura ditu berbaldiok, udalerrian antzera bateko zerbitzua eratu gura dute eta, 2023ko azaroko greba feministatik hona hainbatetan eskatu duten moduan. Horren harira, "Zer egin dezake udalak zaintza arloan?" galderari erantzun gura diote, eta "esperientzia errealek mahai gainean" ipintzeko erabiliko dute hitzordua. Antolatzaileek esan dutenez, berbaldietan aldi bereko itzulpen zerbitzua eskainiko dute.

GKSk borroka antifaxista indartzeko jardunaldia egingo du Durango

Ekaitz Herrera DURANGO

Eskualdeko hainbat herri bonbardatu zutenetik 89 urte bete direla eta, Durangaldeko Gazte Koordinadora Sozialistak egun osoko jardunaldia antolatu du "faxismoaren gorakadari eta estatuen autoritarismoari aurre egiteko". Saioa apirilaren 18an egingo dute, zapatuan, Durangoko gaztetxean. Ekitaldi nagusia 18:00etan hasiko da, borroka antifaxista gaurkotzeko mahai-inguruagaz. Bertan, hiru esperientzia aletuko dituzte: Espainiako falangeari aurre egin zieten Gasteizko aktibisten hitz hartzea, *Azpeitia Errepresioaren Aurka* plataformako kideen esperientzia eta Bilboko Etxarri II gaztetxeko

kide ohiena. Berbaldi horiek "egungo testuinguru politikoa ulertzeko eta kaleetan zein herrietan izaten ari diren erantzun autogestionatuak aztertzeko" baliatuko dituzte, diotenez, "estatuen biraketa autoritarioa eta faxismoaren gorakada eskutik helduta" doazelako.

Boxeoa ere bai

Iluntzean, 19:30ean, boxeoa ikuskizuna izango dute. Eskualdeko zein eskualdetik kanpoko gazte kirolariek parte hartuko dute hitzorduan. Eta, egunari amaiera emateko, Aiaraldeko Soinu Sistemak gaztetxea girotuko du musikagaz. Pizzak eta mojitoak dastatzeko aukera egongo da.

Berrizteak Pinondoko eskulturetan



DURANGOKO UDALA

E.H. DURANGO

Durangoko Udalak Pinondoko gurutzeta eta Pablo Pedro Astarloaren eskultura zaharberrituko ditu. "Zikinkeria handia" eta "nariadura" dutela eta, udalak beharrezkotzat jo du esku hartze espezializatua egitea. Horregaitik, elementu bien kontserbazioa eta zaharberritzea irizpide tekniko espezializatuari jarraituta egingo dute. Zaharberritze lanek 8.457 euroko inbertsioa izango dute.

Julene Azpeitia literatura lehiaketaren edizio berria, martxan

E.H. DURANGO

Durangoko Udalak Julene Azpeitia euskarazko literatura lehiaketaren deialdi berria argitaratu du. Parte hartzaileek hiru modalitatean aurkeztu ditzakete lanak: ipuina, olerkia eta bertso edo koplak saioak. Gaiak libreak izan beharko dira, baina ezinbestekoa da obrak originalak, argitaragabeak eta euskaraz idatziak izatea. Aurten, gainera, berriaz debekatu dute adimen artifiziala erabiltzeko epea apirilaren 30era arte dago zabalik. Sariketan hainbat maila definitu dute Lehen Hezkuntzako 5. mailatik aurrera. Oinarri guztiak *durango.eus* atarian kontsultatu daitezke.

Ikusgarritasun lesbikoaren aldeko zine-foruma Durango

E.H. DURANGO

Datorren apirilaren 25ean, 11:00etan, Durangoko Zugaza zinemak Céline Sciamma zuzendariaren *Sutan dagoen emakume baten erretratu* (*Portrait de la jeune fille en feu*) filma hartuko du. Andreak indarkeria matxistaren aurkako elkarrekin antolatatu du saioa, Andraguneagaz elkarlanean apirilaren 26an ospatzen den Ikusgarritasun Lesbikoaren Egunaren testuinguruan. Egitasmoaren helburu nagusia emakumeen arteko maitasuna aldarrikatzea eta historian zehar isilaraziak izan diren emakume artisten papera azaleratzea da, Andreaken berbetan. Proiekzioaren ondoren, solasaldi bat egingo dute Lanbroa Kolektibo Feministako kideekin eta Cris Walker ekintzaileagaz.

Zinemarako sarrera doakoa izango da. Saioa hasi baino ordu erdi lehenago zabalduko dute leihatila (10:30ean), jesarlekuak bete arte.

Durangoko Udalak ekainean zabalduko ditu igerilekuak

E.H. DURANGO

Herriaren Eskubideak Tabirako igerilekuak udan zabalik egongo ote diren galdetu eta gero, Durangoko Udalak ziurtatu du igerilekuak ekainaren erdialdean zabalduko dituztela: "Lanak martxan dauden arren, udako igerilekua normaltasunez zabalduka da ekainaren erdialdean, urtero legez. Obrak ezarritako planaren arabera doaz, eta irekierari zuzenean eragiten dioten alderdiak lehenesten ari dira", esan dute udal iturriek. Hori bai, erabiltzaileek aldagela modularrak erabili beharko dituzte aurtun ere. Udalaren esanetan, "azkenengoz". Dena dela, hobe-kuntza modura, futbol zelaiak hainbat aldagela erabilgarri ipiniko dute, dutxa gehigarriekin. Izan ere, aldagela berriak eta kafetegia eraikitzeak lanak urrian hasiko dituzte. Iker Txertudi kirol zinegotziak esan duenez, eraikinak botatzeko faseak amaituta daude. Orain, iragazte-gela berria eraikitzen dabilza.

Garaiko kaleak kolorez beteko dira domekan, Landare eta Lorazaintza Azokagaz

Feria 10:00etan hasiko da. 12 landare mintegiren produktuak egongo dira

Ekaitz Herrera GARAI

Domeka honetan, apirilak 19, Garai Euskal Herriko landare eta lorezaleen topaleku bihurtuko da XII. Landare eta Lorazaintza Azokari eskerrak. Udalak eta Urkiola Landa Garapenerako Elkarrekin antolatuko dute azoka eta 10:00etatik 15:00etara bitartean egingo da, ahal dela plazan, giro jatorrean eta beti bezain koloretsu, ohikoa duten moduan. Eta eguraldiak ahalbidetzen ez badu, frontoian. Aurtun, 12 lorezaintza mintegik era guztietako landareak plazaratuko dituzte: landare apaingarriak, zuhaixkak, landare ekologikoak, fruta-arbolak, kaktusak, landare haragijaleak, askotariko loreak zein baratzerako hazi ekologikoak. Horrez gainera, lorezaintzarako lanabesak, baserriko tresnak eta egurra uztartzen dituzten artisaunen lanak ere egongo dira



luz eguraldiak ez zuen lagundu eta frontoian egin zuten azoka.

salgai. Halaber, ekoizleek aholku teknikoak emango dizkiete bertaraten diren erosilei.

Landareez gainera, Durangaldeko baserriko produktuek ere lekua izango dute. Eskualdeko hiru baserriarrek ogia,

gozoak, kontserbak eta artisaugaragardoa salduko dituzte, besteak beste. Gainera, txosna bat ipiniko dute azokan, bertoko produktuekin prestatutako taloak eta edariak eskaintzeko.

Sagardo Eguna zapatu honetan bueltatuko da Garaiko plazara

Ekaitz Herrera GARAI

Hernanira, Astigarragara edo Oiztunera joaten ibili barik, zapatu honetan sagardoaz eta haren kulturaz gozatzeko aukera egongo da Garain. Trumoitte Sagardo Egunaren beste edizio bat ospatuko du 19:00etatik aurrera. Onintza Enbeita eta Gorka Lazkano bertsoari inaurratuko dute iluntze-pasa, eta

ez da jatekorik faltako. Bertaraten direnek 10 euroren truke erosi ahal izango dute edalontzia, eta gura duten beste sagardo edan ahal izango dute horrela. Baina edaria bakarrik ez, prezio horren barruan txistor, urdai, gazta, irasagar eta intxaur mokaduak ere jan ahal izango dituzte. Ekitaldia plazan egingo dute, eta eurria bada, frontoian.



Euririk ez bada, ospakizuna plazan egingo dute. TRUMOITTE

Komun publikoa ipini dute Zaldibarren, Euskal Herria etorbidean

Ekaitz Herrera ZALDIBAR

Zaldibarko Udalak komun publiko autogarbigarria ipini du Euskal Herria etorbidean, udalerriko lehenengoa. Azpiegitura osasun etxearen eta parkearen ondoan dago. Udalak azaldu duenez, herritarrek askotan helarazi diote komun publiko baten beharra: "Parte hartze bidezko aurrekontuetan, adibidez, behin baino gehiagotan jaso dugu proposamena, eta hortik kanpo ere herritarrek sarritan mahaigaineratu digute eskaera", azaldu du Eneritz Azpitarte alkateak. Orain "udalak bat egin du eskariekin, eta beharrezkoa iritzi dio komun publikoa ipintzeari. Azkenean, hemen daukagu, erabiltzeko prest", gaineratu du.

Komun publikoa atal bitan banatuta dago. Kanpoaldean hiru txiza-leku daude, eta barruan altzairu herdoilgaitzeko komunontzia, xaboi-banagailua, ur-txorrota, lehorgailua eta papera. Halaber, haurren txizoiha-

Kontsigna zerbitzua

Bisitarien erosotasunerako, Garaiko nagusien elkarrekin zaindegi edo kontsigna-zerbitzua kudeatuko du. Azokazaleek bertan utzi ahal izango dituzte erositakoak, feria lasaiago ikusteko. Gero, etxerako bidea hartu gura denean, erositakoak hartu ahal izango dituzte. Bestalde, udalak jakinarazi du azokako gunearen barruan laguntzaileak egongo direla erosketak kontsignara eramateko. Gainera, zerbitzu hori erabiltzen dutenen artean Etartie dendako produktuen otzara bat zotz egingo dute.

Garaiko Udalak eta Urkiola Landa Garapenerako Elkarrekin herritar guztiak gonbidatu dituzte azoka giroaz gozatzera. Era berean, eskerrak eman dizkiete ekimena posible egiten duten boluntario eta lantalde guztiei.

Txosna bat eta eskualdeko ogia, gozoak eta kontserbak erosteko postuak ere egongo dira



Azpiegitura berria. ZALDIBARKO UDALA

Jan Alai Burger hanburgesa lehiaketa Zornotzan, apirilaren 17tik maiatzaren 3ra

Herriko 18 taberne edo jatetxek parte hartuko dute aurtengo aldian



Amaia Aurrekoetxea eta Leticia Moreno, eguzteneko prentsaurrekoan.

Joseba Derteano ZORNOTZA
Apirilaren 17tik maiatzaren 3ra bitartean, Jan Alai Burger lehia-

ketaren lehenengo edizioa egingo dute Zornotzan. Ekimen berri honetan, herriko 18 tabernak

eta jatetxek parte hartuko dute eta sormen libreko hanburgesak aurkeztu ahal izango dituzte. "Establezimendu lehiakideek proposamen berritzaileak sortu ahal izango dituzte, bezeroak harrizko egokienak iruditzen zaizkien osagaiak erabilia", nabarmendu zuten antolatzaileek lehiaketaren aurkezpenean.

Hautetxek dira txapelketan parte hartuko duten taberna edo jatetxeak: Goider, Ortzimuga, Batzoki Amorebieta, Coco Loco Smash Burger, Propi, La Amistad, Zelaieta, Aterpe, Leku Berri, Oasis, Venezia, Singing Munch, Harrison, La Viña, Aspaldiko, Amets, Txiri Txiri eta Bar Iruña. Establezimendu bakoitzean hanburgesak eskuragarri egongo diren ordutegi zehatzak jakiteko, zuzenean taberna bakoitzean kontsultatzea gomendatu dute antolatzaileek.

Sariak

Lehiaketak sari bi izango ditu. Batetik, 1.000 euroko saria eman gote epaimahaia aukeraturiko hanburgesarik onenari, sormena, zaporea eta aurkezpena baloratuta. Bestetik, herritarren botorik gehien jasotako hanburgesak 500 euroko saria jasoko du.

Herritarrek tabernetan dauden buzoien bitartez bozkatu ahal izango dute. Bozkatzan duten pertsonak 500 euroko zozketa batean sartuko dira.

"Ekimen honen bitartez, tokiko kontsumoa bultzatzeaz gainera herritar eta bisitarien zat esperientzia gastronomiko berriak sortzea ere bilatzen dugu", adierazi zuen aurkezpenean Amaia Aurrekoetxea, Tokiko Merkataritza eta Ostalaritza zinegotziak.

Zornotzako Batzokiko Leticia Morenok horrelako ekimenen garrantzia azpimarratu zuen lehiaketaren aurkezpenean: "Zapore berriak proposatzeko aukera izango dugu, bai guk bai gainerako parte hartzaileek. Oso ekimen ona da eta jendea parte hartzera gonbidatzen dugu".

Otxoteek Zornotzako kaleak girotuko dituzte domekan honetan



Zornotzako otxotea kantuan.

J.D. ZORNOTZA

Kanturako grina eta ondo pasatzeko gogoak daukanak hitzordu aproposa du domeka honetan Zornotzan: udalerriko otxoteak eta Durangoko Astarloa otxoteak kalejira egingo dute tabernarik taberna kantuan. Ekitaldia 11:00etan hasiko dute, Txiri-txiri tabernan. Eztarriak berotu ondoren, kantua eta giro ona zabaltzen jarraituko dute udalerriko kaleetan. Otxote biek Singing Munch, Sukoi, Osis, Vene's, Lopena, Guria eta Urtza tabernak girotuko dituzte euren askotariko abestiekin.

Roxana Troncea Zornotzako ONCeren saltzailea, Euskadiko Urteko Saltzaile

J.D. ZORNOTZA

Roxana Tronceak Euskadiko ONCeren 2025eko saltzailerik onenaren saria irabazi du. Sei finalisten artean, bera aukeratu dute ONCeren Bilboko Ordezkaritzan egindako galan.

Troncea ONCEk Zornotzan dituen bost saltzaileetarik bat da. Asteburuetan Sabino Arana eta San Migel kaleetako kios-

koetan saltzen du, eta astelehen, eguzten eta barikuetan udalerriko hainbat tokitan. Gainera, iazko urtarrilean Amorebieta Kirol Elkartearen mendeurenari eskainitako kupoiaren aurkezpenean parte hartu zuen. Irabazitako sariari dagokionez, "emozio handia" sentitu zuela adierazi du ONCeren ohar batean.



Roxana Troncea erdian, ONCeren galan. ONCE

Domekan 'Kolapsoa' antzezlanaren ikusteko aukera dago Atxondon



Antezlaneko une bat. NOAJA

J.D. ATXONDO

Udalbiltzaren Geuretik Sortuak egitasmoaren barruan sorturiko 'Kopasoa' antzezlanaren ikusteko aukera dago domekan, 19:00etan, Apatako frontoian. Jon Ander Urrestik eta Matxalen de Pedrok sorturiko komedia kritikoa gaur egungo ekonomia ereduaren miseriak azaleratzen dituzte. Hiru publizista dira protagonistak, behar ez diren gauzak saltzeko gaitasuna dutenak; txakurrentzako katuskak zein zuhaitzentzako euritakoak. Baina azken orduko eskaera batek euren agentzia hankaz gora ipiniko du.

48 urteko gizon bat atxilotu dute Berrizen bikotekideari eraso egitea egotzita

E.H. BERRIZ

Apirilaren 6an 48 urteko gizon bat atxilotu zuten Berrizen, bikotekideari labanaz eraso egitea egotzita.

Eraso matxista hori salatzeo, biharamunean manifestazio jendetsua egin zuten herrian. "Gertatutakoa oso larria da eta ezin dugu inolaz ere normaltzat hartu. Onartezina da emakumeon

eta gure seme-alaben bizia arriskuan ipintzea", adierazi zuten Berrizko mugimendu feministako kideek. "Min ematen digu, haserretu egiten gaitu, nekatuta gaude, eta nazkatuta gaude gu hiltzen, zauritzen eta beldurtzen jarraitzen duzuelako. Ez dugu onartzen, ezta onartuko ere, emakumeen aurkako indarkeriarik", gaineratu zuten.



Manifestazioko argazki bat.



GREMIOEN gida.

Iragarkia ipini gura baduzu, deitu **688 731 402** zenbakira

DEKORAZIOA 

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko altzairuen lakadura eta guztietako zaharberritzeak egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A - BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com

ZURGINTZA 

leike Eraberritzeak Interiorismoa Aroztegia

NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK




www.leike.eus
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf: 94 681 72 29


ZURGINTZA 

ATERPE ARROTZAN
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar
635 74 84 65
www.carpinterlaaterpe.com

ELEKTRIZITATEA 


ELECTRICIDAD JON

622 684 284
electricidadjon@outlook.es

ITURGINTZA 


UNAI GARAY
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

INSTALATZAILE BAIMENDUA

659 673 790
unaigaray@yahoo.es



Joan zen domekan Saibigainen egindako ekitaldia. MAURO SARAVIA

1937an Saibigaingo batailan desagertutakoak gogoratu dituzte

Saibigain mendian desagertutako gudari eta milizianoen familiek "ezerk eta inork" ere ez dituela geldiaraziko adierazi dute

Aitziber Basauri DURANGALDEA

1937an Saibigaingo batailan desagertutako gudari eta miliziano euskaldun eta asturiarrak omendu zituzten domekan. Saibigain 1937 Memoria Historikoaren Elkarteak Burdin Heziaren Oroimen Museoagaz eta beste elkarte memorialista batzuekin batera antolatutako ekitaldian, Asturiasko Gobernuaren ordezkariak ofizial batek parte hartu du lehenengoz.

"Saibigain gerraren gogortasuna sinbolizatzen duen tokia da, baita lubakia partekatu

zuten herrien arteko anaitasuna ere. Asturiarrak eta euskaldunak elkarregaz borrokatu ziren estatu kolpe faxistaren aurka, askatasuna eta demokrazia defendatuta", nabarmendu zuen Asturiasko Memoria Demokratikorako sailburu Ovidio Zapicok. Era berean, Eusko Jaurlaritzari eskerrak eman zizkion Asturiasko milizianoak aurkitzeko Saibigainen egiten dabilen lanagaitik, "frankismoaren biktimen erreparazioan aurrera egiteko ezinbesteko lana".

Meabe (PSOE), Gonzalez Peña (UGT) eta Arana Goiri (EAJ-PNV) batailloietako gudarien eta euskal milizianoen izenak aipatu zituzten Saibigainen egindako lore eskaintzan. Salsamendi (PCE), Guillermo Torrijos (UGT) eta Eusko Gudarosteko beste unitate batzuk ere izan zituzten gogoan, baita Victor (CNT) eta Lenin-Taboada (PCE-Juventudes Socialistas Unificadas) batailloietako miliziano asturiarrak ere. Guztira, 117 arrosa ipini zituzten, Saibi mendia inguruan desagertutako 117 gazteen omenez. Igorretik, Dimatik, Getxotik eta Bilbotik bertaratu ziren Saibigainen desagertutako gudarien senideak; baita Asturiastik, Herrialde Katalanetatik eta Bruselatik ere, besteak beste. Senideen bila jarraituko dutela gaineratu zuten.



Iaz Donien Atxa jaso zuteneko argazki bat.

Maruxak, Malakias eta Josetxu Piperrak, besteak beste, sanprudentzioetan

M.Z. ABADIÑO

Apirilaren 27an Donien Atxa jasota hasiko dituzte Traña-Matienako San Prudentzio jaia. 19:00etan altxatuko dute txopoa, eta orduantxe lehertuko da festa auzoan.

Adin eta gustu guztietako herritarrentzat antolatu dute egitaraua Abadiñon. Esaterako, jaietako lehenengo barikuan, maiatzak 1, Mozorro Eguna ospatuko dute, eta gaia Munduko Mitologiak izango da. Hurrengo egunean, jendetza batzen duen paellen txapelketa egingo dute. Bestalde, maiatzaren 3an artisautza azoka egongo da, eta maiatzaren 9an Gazte Eguna ospatuko dute.

Musika eskaintza zabala

Musikari dagokionez, beste urte batez eskaintza zabala egongo da. Apirilaren 30ean Haizea-Arrosa taldea eta DJ JKRmona&Berreros arituko dira Traña plazan. Hurrengo egunean, Ainkek, Impuesto Revolucionariok (Eskorbutori Gorazarre) eta Josetxu Piperrak-ek kontzertua joko dute. Maiatzaren 2an Malakias arituko da, Txosnagunean, eta Trañabarren etorbidean Orquesta Génesis-ek joko du.

Bigarren asteburuan, maiatzaren 8an, Zirkinik Bez! taldearen erromeria egongo da. Eta Gazte Egunean, maiatzak 9, Maruxak, DJ Kuku eta DJ Inshore arituko dira, Txosnagunean.

1936ko gerrak Abadiñon izandako eraginak liburu batean jaso dituzte

Maialen Zuazubiskar ABADIÑO

Gerediaga elkarteak 1936ko altxamendu faxistak eta ondorengo gerrak Abadiñon izandako eraginak ikertu ditu, Abadiñoko Udalak babestutako egitasmoan, eta, ikerketan parte hartu duen talde zabalaren ekarpenak aintzat hartuta, Jesus Mari Arruabarrena abadiñarrak 1936ko gerraren oihartzuna. Abadiñarren testigantzak liburua idatzi du.

Liburua hainbat ataletan banatuta dago. Jesus Mari Arruabarrenak idatzirikoa kontakizuna gerraurreko testuinguruan hasten da, Abadiñoko egoera soziopolitikoan kokatuta; gerrako pasarteak eta gaiak ere jo-

rratzen dira. Horrez gainera, Jimi Jimenez historialariak gerragaz zerikusia izan zuten abadiñarren zerrendak osatu ditu; liburuko azken atalean ageri dira.

Bestalde, Mila Salterainen eta Luis Berrizbeitiaren hitzurre batek zabaltzen du 1936ko gerraren oihartzuna. Abadiñarren testigantzak liburua.

Aurkezpena apirilaren 23an

Gertakari historikoak, artxi-boetako datuak eta herritarren testigantzak batzen dituen liburua apirilaren 23an aurkeztuko dute jendaurrean. Errota Kultur Etxean egingo dute ekitaldia, 18:30ean.

Mallabitarrek Hazilan+ programan parte hartu dezakete

M.Z. MALLABIA

Mallabiko Udalak, Debabarrenako beste udal batzuekin eta Debegesa enpresagaz batera, Hazilan+ programa ipini du martxan. Programa hau, kalifikazio maila ertain-handikoa izan arren, lan merkatuan sartzeko edo berriro sartzeko zailtasunak dituzten pertsonen enplegagarritasuna hobetzeko eta horien laneratzea errazteko da.

Debegesa da programaren kudeatzailea, eta bere webgunean eman beharko da izena (www.debegesa.com), apirilaren 30a baino lehenago.



Igor Agirre mallabiko alkatea hazilan+ aurkezpenean.

 **anboto**

EMAN
ZURE
BOTOA



**Eman zure
botoa**
anbotoko
webgunean

UDABERRIKO
ARGAZKI LEHIAKETA

Okm batzen gaituen distantzia

ANBOTOKIDE


APIRILEKO ZOZKETAK



HERRI URRATS

gofoa eragile

Herri Urrats-eko opari sorta.



Xiberu taberna
(Zornotza) bi gosari bikoitz.



Zornotza aretoa
Kimu (Marie de Jongh)
Umeentzat
Apirilak 25

EGIN ZAITEZ ANBOTOKIDE
ETA PARTE HARTU
GURE ZOZKETETAN!



OTSAILEKO IRABAZLEAK

Zornotza Aretoa R&J

Lorea Gablola Anakabe

Arriola "Zerbait sartu zait begian"

Uxue Altube Eguren

Basa take away

Itsaso Barroeta Usubiaga

Xiberu tabernan gosaria

Gemma Telletxe Kortabarria

Bidane Txopitea Bilbao

Korrikako produktu sorta

Idurre Barala-Etxaburu Zublaurre

Udalak Arruetako eta Urkuletako argiteria publikoa berriztu du Mañarian

J.D. MAÑARIA

Mañariko Udala herriko auzoetako argiteria publikoa berrizten dabil, jasangarritasuna eta herritarren segurtasuna hobetzea helburu duen berriztapen plan orokor baten barruan. "Esku-hartze honen bitartez, udalerriko azpiegiturak eguneratu eta energia-eraginkortasuna bultzatu gura dugu", azaldu dute ohar

batean. Orain arte Arrueta eta Urkuleta auzoetan egin dituzte lanak, eta guztira zortzi argi-puntu berriztu dituzte gune bi horietan, teknologia fotoboltaikoa txertatuta.

Ekimen honetarako, udalak 7.758 euroko inbertsioa egin du eta berriztapen lan hauek etorkizunean beste auzo batzuetara zabaltzea ere aurreikusten du.



Berriztu den argi gune bat, Urkuleta auzoan.

Beste urrats bat Elorrio tentsio handiko bizitegi eremu izendatzeko bidean

Udalak azaldu du izendapen hau "funtsezkoa" dela etxebizitzaren eremuan neurri esanguratsuak aplikatzeko

J.D. ELORRIO

Azken udalbatzan, Elorrioko Udalak onartu egin du Eusko Jaurlaritzari Elorrio etxebizitza merkatu tentsionatuaren eremu izendatzeko eskaera egiteko akordioa. EH Bilduren eta Podemos-Ahal Duguren aldeko botoekin eta EAJren abstentzioagaz onartu dute akordioa.

Udalak dagoeneko bidali ditu beharrezko dokumentuak Etxebizitza Sailera: etxebizitzaren egoerari buruzko azterketa eta ekintza plana. Azken horretan, "antzemandako desorekak" zuzentzeko ipiniko diren neurri zehatzak jasotzen dira, baita izendapenak indarrean iraungo duen hiru urteetarako garapen-egutegia ere, udalak ohar batean azaldu duenez.

"Egindako azterketak agerian uzten du Elorrioko etxebizitza merkatua ez dagoela orekatuta.

Hau da, tentsio handiko bizitegi eremua izendatzeko eskaera datu objektibo eta neurgarrietan oinarritua dago", adierazi dute.

Ekintza planak 26 neurri jasotzen ditu, lau ardatz nagusitan antolatuta: alokairu eskuragarria bultzatzea, etxebizitza parkeari eta hiri-birgaitzeari loturiko jarduerak, alokairurako prestazioa eta diru laguntza sistema, eta gobernantza eta erakundeen arteko koordinazio mekanismoak. Udalak zehaztu du planean jasotako neurrietariko batzuk dagoeneko martxan direla, baina beste batzuk tentsio handiko bizitegi izendapena lortu eta gero bakarrik ezarri ahal izango direla. Diotenez, izendapen hau "funtsezkoa" izango da neurri esanguratsuak aplikatzeko, hala nola alokairu prezioen mugaketa edo errentarientzako luzapenak ezartzeko.

Hastear dago Mañariko udalekueetan izena emateko epea

J.D. MAÑARIA

Mañariako Udalak dagoeneko prest ditu 2026ko udalekuak. Ekainaren 22tik uztailaren 17ra izango dira eta adinaren arabera antolatutako taldeetan banatuko dituzte parte hartzaileak.

Izen ematea fase bitan egingo da. Mañarian erroldatutakoek apirilaren 20tik maiatzaren 7ra egin dezakete, eta erroldatuta ez daudenek apirilaren 22tik maiatzaren 7ra. Bide bi daude izena emateko: aurrez aurre udaletxean (07:30etik 11:00etara) edo modu telematikoa, udalaren webgurearen bitartez. Asteko prezioa 30 eurokoa izango da eta aurten ez da zozketarik egingo; plazak izena eman ahala esleitu dira.

Parte hartzaileak lau taldetan banatuko dituzte, adinaren arabera. Udalekuek askotariko jarduerak eskainiko dituzte: igerilekura edo hondartzara irteerak, Mañaritik ibilaldiak... Horrez gainera, nagusien taldearentzat udaleku ibiltaria egingo dute, uztailaren 13tik 17ra.

Swing ikastaro berriaren parte hartzeko aukera dago Izurtzan



Korralla Sormen Guneako espazioa.

J.D. IZURTZA

Izurtzako Korralla Sormen Gunean beste ikastaro bat hasiko dute laster: swing dantza estiloan saskontzeko ikastaroa. Apirilaren 26an hasiko da, 11:00etan. Ikastaroak ordu bi iraungo du. Hortik aurrera, hilean behin elkartzeko dira, domeka batean. Gasteizko The Bounce Swing eskolako kideek emango dituzte klaseak. Eskolako kideen esanetan, ez da espezializari behar ikastaroan parte hartzeko. Bertan, Lindy Hoparen oinarriak ere irakatsiko dituzte. Izen ematea korralla@ganso.info helbidean egin daiteke, 25 euroan.

Pertsona bat atxilotu dute, Iurretako paper fabrikan suteak eragindako kalteak egotzita

A.B./ M.Z. IURRETA

Joan zen barikuan sua piztu zen Iurretako Smurfit Westrock paper fabrikaren kanpoan zeuden paper bobina batzuetan. Ez zen zauriturik egon, bainaugar handiak sortu ziren eta N-634 errepide nagusia itxita egon zen zapatu goizera bitartean. Ondoren, Ertzaintzak 36 urteko gizon bat atxilotu zuen domekan, ustezko kalte-delituategaitik. Atxilotuak laneko hartu-emanaduan enpresagaz, eta "sutearen ondoriozko kalteak eragitea" egotzi diote, Ertzaintzak jakinarazitakoaren arabera.

Paper zati txikiak

Sutearen eraginez, Durangon eta Iurretan paper zati txikiak jausten hasi ziren. Horren aurrean, udal bietako ordezkariak lasaitasun mezua helarazi gura izan zuten herritarrei: "Hondakin horiek ez dute eraginik osasunean, eta sua kontrolpean dago",

adierazi zuen Durangoko Udalak. Iurretako udal ordezkariak Bizkaiko Aldundiagaz eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailagaz hartu-emanetam egon ziren; baita larrialdi zerbitzuekin ere. Adierazi zuten Osasun Sailak "arriskuak aztertu eta detektatzeko" unitate mugiko

rra bidali zuela. "Jaurlaritzak barikuan eta zapatuan egindako neurketa guztiak zuzenak dira eta ez dago arriskurik osasunerako", esan zuten. Domekan ere egin zituzten neurketak. Sua sortu eta hurrengo egunetan ere suhiltzaileek sua amatatzen jarraitu zuten.



Suhiltzaileak, Iurretako paper fabrikan piztutako sua amatatzen. @IURRETABOMBEROS

Udako tailerretan izena emateko epea zabaldu dute Iurretan

A.B. IURRETA

Iurretako Udalak tailer bereziak antolatuko ditu udara begira, 3 urtetik 14 urtera arteko neska-mutilei zuzenduta. Ekainaren 29tik uztailaren 11ra bitartean, "modu hezigarrian umeentzako aberasgarriak diren ekintzak" eskainiko dituzte, "aisialdirako alternatiba" emateko. Apirilaren 24ra bitartean eman daiteke izena, HAZen edo telematikoki. Maiazaren 6an jakinaraziko dute onartuen zerrenda, Ibarretxe kultur etxean.

Next Stop: The World. Horixe da aurtengo udako tailerrak garatzeko aukeratutako gaia, eta neska-mutilak munduan zehar bidaiatzera gonbidatuko dituzte, herritik irten barik. Egun bakoitzea herrialde bati eskainiko diote, eta, jarduera dinamiko eta parte hartzaileak baliatuta, hango kultura, gastronomia, kirol jarduera eta musika ezagutzeko aukera izango dute. Herri eskolan egingo dituzte tailerrak, 09:00etatik 14:30era.

Udaberri jaia ospatuko dute Otxandion, Gazte Asanbladak antolatuta



Mateo Zikuta & El Garto. BADOK

A.B. OTXANDIO

Gazte Asanbladak udaberriari ongietorria emateko jaia antolatuko du zaturako. Karropoteoagaz abiatuko dute egitaraua, 13:00etan. Ondoren, bazkaltzeko elkartuko dira pasealekuan. Eta bazkalosterako jolasak antolatuko dituzte. Arratsaldean, Bidenabar musika taldeak bertoko du jai giroa. Plazan izango da, 18:00etan.

Gaztetxeko kontzertuek boro bilduko dute eguna. 721 taldea eta Mateo Zikuta eta El Garto izango dira bertan, 23:00etan. Gero, MJ Aforrau arituko da.

Lan bide
HEZIKETA

ZATOZ
ATE
IREKIETARA!

ATE IREKIAK

Apirilak 22 ▶ 18:00etan

Ferixalekuan (Arrasate)

www.arizmendi.eus

arizmendi
ikastola **PRO**

HASIERAKO
lanbide heziketa

- Sukaldaritza
- Etxebizitza mantentze lanak
- Informatika eta **BERRIA!** komunikazioetarako oinarriko profesionala

ERDI mailako
lanbide heziketa

- Erizaintzako zaintza osagarriak
- Mikroinformatika sistemak eta sareak
- Osasun larrialdiak

GOI mailako
lanbide heziketa

- Gizarte eta kirol animazioaren irakaskuntza

Hirugarren astez greban CAFen

Abadiño, Gasteizko eta Sopolako CAF Turnkey & Engineeringeko langileek greba mugagabea hasi zuten orain hiru aste. CAF taldeko filial hau Euskotreneko EMUen, Gasteizko tranbiaren eta Metro Bilbaoko berme zerbitzuen mantentze-lanez arduratzen da. Harrezkero, CAF taldeko beste zentro batzuekiko "diskriminazio egoera" salatzen dabilta.



CAF Turnkey & Engineeringeko langileak.

DURANGALDEA ASTEON

Gazte bat ikertu eta 2025ean Zornotzan gertatutako sexu eraso bi egotzi dizkiote

ZORNOTZA Emakume bik Zornotzako ekitaldi batean gertatutako erasoak salatu dituzte. Guardia Zibilaren ikerketen ondorioz, gazte bat ikertu dute. Poliziaren jarduera Burgosko Medina de Pomarreko Guardia Zibilaren postuan aurkeztutako salaketa baten ondorioz hasi zen.

Gernikako Arbola abestia ereserki bihurtu dadin pausoak eman gura dituzte Urkiolan

ABADIÑO Gernikako Arbola euskal zazpi lurraldeen askatasunaren eta anaitasunaren ereserki legez berreskuratzeko eman beharreko urratsak baloratuko dituzte asteburuan Urkiolan. Lehenengo, Gernikako Arbola Kultur Elkartearen batzarra egingo dute, gero abestia abestu eta bazkaritarako batuko dira.

'Aitatxo' dokumentala ikusgai Durangoko San Agustinen, barikuan

DURANGO 'Aitatxo' dokumentalak seme-alabak galtzearen dolua du ardatz, aiten ikuspegitik. Anakotz Lasarte zuzendariak emanaldian parte hartu eta berbaldia emango du amaieran. Proiektzioa 18:30ean izango da.

Zaldibarko lehenengo kuadrillen egunak harrera beroa izan du

ZALDIBAR Zapatuan kuadrillen eguna ospatu zuten Zaldibarren, lehenengoz. Antolatzaileek "balorazio positiboa" egin dute, eta oraindino ezer zehaztu ez badute ere, atea zabalik utzi dute beste edizio bat antolatzeko, "egundoko harrera" izan du eta.



Gazte Eguneko parte hartzaile batzuen argazki bat.

GUTUNAK

Zure gutuna helarazteko helbidea: Bixente Kapanaga 9 - lurreta
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO: Izen-abizenak / Telefona / Helbidea / Nortasun Agiriaren zenbakia.
Alderdi, elkarte edo taldeko iritziaik kide baten izenean sinatuta eta ANBOTÖren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

POLITIKAN

Nire amaren etxea defendatuko dut



CARLOS GARCIA
PP

Nire aitaren etxea defendituko dut. Indar horrekin, Gabriel Arestik gure identitatearen defentsaren ereserki bat utzi zigun. Baina gaur, XXI. mendean, irimotasun berarekin aldarrikatzen dut: Nire amaren etxea defendatuko dut.

"Amaren etxe" hori berdintasun, askatasun eta giza duintasun balioen etxe sinbolikoa da. Eta etxe hori inportatutako kulturek eta sinesmenek setiatzen dute, matxismo atabikoena dakartenak. Tolerantzia eskatzen digute, baina onartzen da emakumeak, ustez errotutako ohituren itxurapean, menperatzen, ikusezin bihurtzen edo gaizki tratatzen dituztela.

Ezin da norberaren kultura defendatu emakumeen aurkako gorrotoa —kanpoko tradizioz estalita— gure mahaian onartzen bada.

Nire amaren etxea defendatuko dut inposatutako menpekotasunaren aurka, desberdintasunaren beloaren aurka.

Nire ama defendatuko dut, eta ama guztiak, gure etxea, gure lurra eta gure gizartea berdintasun eta askatasun espazio bat izan daitezen.

"Amaren etxe" hori berdintasun, askatasun eta giza duintasun balioen etxe sinbolikoa da

anboto

ARGITARATZAILEA

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 lurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902



Zuzendaria

Jone Guenetxea Arrinda.

Erredakzio burua

Ekaitz Herrera Azkarraga.

Administrazioa

Itziar Belar Zubizarreta.

Publizitatea

Goretti Alonso Armendia.

Erredakzioa

Aitziber Basauri Gandiaga,

Joseba Derteano Bilbao,

Maialen Zuazubiskar

Gallastegi, Aritz Maldonado

Zabala.

Marketina

Deñe Izaga Yeregui.

Maketazioa

Eider Alberdi Bengoa.

Zuzentzailea

Mikel Azkarraga Etxegibel.

Lege gordailua: BI-2268/01

ISSN: 1578-7028

Tirada: 12.000 ale



LAGUNTZAILEAK



Aldizkari honek Bizkaiko
Foru Aldundiaren laguntza jaso du

Hezkuntza, Hizkuntza Politika
eta Kultura Sailak diruz lagundua



errenta aitorpena



M.Z. DURANGALDEA

Apirilaz batera, 2025eko ekitaldiko errenta aitortzenaren epealdia hasiko da Hego Euskal Herrian, eta, horregaz batera, UEMAk, bertako kide diren udalekin eta Foru Ogasunekin elkarlanean, berau euskaraz egiteko kanpaina hasi du aurreten ere. Bizkaian eguaztenez hasi zen errenta aitortzeko epea, apirilaren 15ean.

Kanpaina honen barruan, UEMAk errenta aitortpena euskaraz egiteko argibideak eman ditu. Esaterako, hitzordua hartzerakoan, ogasunagaz hartu-eman euskaraz izan gura dela adieraztea nahikoa da hartu-eman euskaraz izan dadin, bai aurrez aurre eta baita telefonoz zein Internet bidez ere. Ogasunak sinatzeko ematen duen orria ere euskaraz jaso daitekeela zehaztu dute. Errenta aitortpena Interneten bitartez egiten duenak euskarazko bertsioa jaitzi dezake, eta hobetsitako hizkuntza atalean euskara hautatu. Aholkularitza bat aukeratzeko duenak berariaz adierazi beharko du aitortpena euskaraz egin gura duela. Beste moduren batean egiten duenak —finantza erakunde batean, esaterako— euskaraz egiteko eskatu dezake.

Herrietako datuak

"Errenta aitortpena euskaraz egiten duten herritarren kopurua urterik urte gorantz doan arren, errealitate soziolinguis-

UEMAk gonbidapena egin du errenta aitortpena euskaraz egiteko

UEMAk, Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak, errenta aitortpena euskaraz egiteko kanpaina hasi du udalekin eta hainbat erakunde publikogaz batera



Euskaraz errenta aitortpena egiteko deia egin dute.

Durangaldeari dagokionez, ehunekorik handiena Otxandikoa da, %10,6gaz

tikoak erakusten dituen datuetatik urrun dago oraindino", esan dute UEMAkoe, eta datuek ere horixe erakusten dute. Iaz, Bizkaian, Amoroto (%27,9), Mendexa (%23), Aulestia (%22), Ispaster (%18,7) eta Gizaburua (%16) izan ziren euskaraz

errenta aitortpenik gehien egin zuten herriak. Gipuzkoan gehieneko ehunekoak handiagoak dira: Oresa (%71), Zerain (%69), Amezketeta (%61), Atun (%60) eta Abaltzisketa (%60), UEMAkoe emandako datuen arabera.

Durangaldeari dagokionez, ehunekorik handiena Otxandikoa da, %10,6gaz. Atxondo dator segidan, %7,5egaz. Portzentajee-tan Garai da hirugarren herria %7,2gaz. Bi herririk handienek, Durangok eta Zornotzak, ehuneko bera dute: %4,3.

Eskualdeko datuak, ehunekotan

Durangaldean, batez beste, Otxandion eta Atxondon egiten da errenta aitortpena gehien euskaraz.

- Abadiño: % 5
- Atxondo: % 7,5
- Berriz: % 5,4
- Durango: % 4,3
- Elorrio: % 5,6
- Garai: % 7,2
- Iurreta: % 6,1
- Izurtza: % 6,7
- Mallabia: % 4,1
- Mañaria: % 5,9
- Otxandio: % 10,6
- Zaldibar: %3,7
- Zornotza: % 4,3

* UEMAk jakinarazitako datuak

Anbotokide kuota % 45 merkeago 2025eko errenta aitortpenean

2025ean Anbotokide kuota ordaindu zutenek %45eko onura fiskala izango dute errenta aitortpenean

M.Z. DURANGALDEA

Anbotokide izatea ANBOTOren komunitatearen parte izatea da, euskararen erabilera bultzatzea eta herrigintzaren aktibazioan pausoak ematea. Baina, horrez gainera, Anbotokide egiteak hainbat abantaila du. Esaterako, %45eko onura fiskala lortu daiteke 2025eko errenta aitortpena egiterakoan. Aurten batzen direnek onura berdina izango dute datorren urteko errenta aitortpena egiterakoan. Euskara bultzatzen

egiten duen lanagaitik, ANBOTO komunikazio taldeak lehenetsuneko mezenazgo jardura izendapena du Bizkaiko Foru Aldundian, eta horren on-

Aurten batzen direnek onura berdina izango dute datorren urteko errenta aitortpena egiterakoan

dorioa da errenta aitortpenean lortu daitekeen onura fiskala.

Anbotokide egiteak beste hainbat abantaila ere badu: deskontuak Durangaldeko hainbat saltokitan, lehenetsuna eta deskontuak ANBOTO antolaturiko jardueretan, egutegia doan jasotzeko aukera...

Gainera, hainbat zozketatan parte hartzeko aukera dago. Apirilean zozketa bi daude martxan, Anbotokide direnentzat bakarrik: Zornotzako Xiberu tabernan lagun birentzako gosari bi eta Herri Urratseko produktuak. Zozketa hauei buruzko informazioa www.anboto.org/zozketak atalean eskuratu daiteke.



Anbotokide egiteko, eskaneatu QR kode hau.



Anbotokide txartela.



Etxe bakoitza historia bat da

Zure lehen etxea. Zurea bakarrik.
**Zatoz Kutxabankera eta zure historiaz
hitz egingo dugu.**

Hipotekak



Xabier Bengoetxea, Jon Andoni Bengoetxea eta Vanessa Alvarez Bengoetxea & Asociados aholkularitza etxeko kideetarikoz batzuk dira.

"Zergak kontu teknikoak dira eta aditu bategaz lantzea komeni izaten da"

JON ANDONI BENGOETXEA AHOALKULARI FISKALA

Abokatu durangarra buru-belarri dabil herritarrei errenta aitorpena behar den moduan zelan egin aholkatzen. Durangoko Plateruen plazan du bulegoa

Ekaitz Herrera OGASUNA

2025eko errenta aitorpena egiteko epea martxan da Bizkaian. Dagoeneko Foru Aldundiko Ogasunak prest ditu zirriborroak Interneten, *bizkaia.eus* atarian, eta herritarrek bertan kontsultatu ditzakete kontuak. Zirriborro hori paperean jaso gurago dutenek ere laster jasoko dute proposamena, eskutitz bidez, etxeko buzoian. Jon Andoni Bengoetxea *Bengoetxea & Asociados* aholkularitza etxeko abokatua da. Berak eta Durangoko Plateruen Plazan kokatutako aholkularitza etxeko kideek arretarik profesionalena eskaintzen diete herritarrei, errenta aitorpena behar den moduan aurkezteko.

Nor dago errenta aitorpena aurkeztera behartuta?

Batetik, laneko irabazien ondorioz urtean 20.000 euro gordi-

neko etekinak izan dituzten pertsona guztiak. Eta, bestetik, higigarrien kapitalaren eta interes irabazien ondorioz 1.600 euroko muga igaro duten herritarrek.

Eta iaz kontratu bat baino gehiago izan zutenak?

Salbuetsita daude. Aurtengo nobedadeetarikoz bat horixe da, hain zuzen ere: errenta aitorpena egiteko salbuetsita daude kontratu bat baino gehiago izan duten herritarrek, nahiz eta 20.000 euroko langa igaro ez. Aldaketa horren eraginez, Bizkaian handitu egin da aurkezpena egiteko betebeharretik salbuetsita dagoen pertsona kopurua.

Zer beste nobedade dago? Zeintzuk dira berrikuntzak kenkarietan?

Familiaren esparruan, mantenu pentsioen kenkaria zabaldu egin da bigarren mailako senideak

barne hartzeko. Kenkari hori %15 da seme-alaba bakoitzeko, %30era arteko mugagaz. Bestalde, kenkari berri bat dago zain-tzaileak kontratatzeagaitik: 250 eurokoa da. Eta 30.000 eurotik beherako zergapeko errenta duten alargunek 200 eurora arteko kenkaria izan dezakete.

Eta etxebizitza arloan?

Etxebizitza erosketari eta alokairuari dagokionez, 30 urtera arteko herritarrek %35eko kenkaria izan dute orain arte, baina kontua da adin tartea handitu egin dutela eta aurrerantzean 36 urtetik beherakoek erabili ahal izango dutela kenkari hori. Ez hori bakarrik. Tasa hori familia ugariak, guraso bakarrek familiak eta %65eko desgaitasuna duten pertsonak ere erabili ahal izango dute. Gainerakoek, 36 urtetik gorakoek eta aipaturiko kasuez

apartekoek, %20ko kenkaria izango dute. Etxebizitza-aurrezki kontua ere hobekuntzekin dator: kenkaria %18tik %23ra igo da, eta inbertsio epea 6 urtetik 10era. Etxebizitzarako familia-arte dohaintzari dagokionez, 2025eko apirilaren 23tik aurrera 36 urtetik beherako pertsonen ohiko etxebizitza bat erosteko hirugarren mailara arteko senideek egingako eskaintzak salbuetsita daude Oinordetza eta Dohaintza Zergatik, 30.000 eurora arte. Kasu horretan, erosketari amaitzeko epea urte bikoa izan behar da lehenengo mailegaren datatik aurrera.

Enpleguari dagokionez, zer hobari dago?

Enpleguari eta Gizarte Segurantzari loturiko esparruan, kenkariak daude Euskadiko pentsio planak (EPSV edo Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Era-kundeak direlakoak) dituztenentzat. Kasu horretan, kenkariak %15-25 artean mugitzen dira, eta %10ekoak dira enplegatuen edo langilerik bako autonomoen ekarpenetan. Gazteen kasuan, kopuruak handiagoak dira: %25 eta %15 hurrenez hurren.

Badago beste hobaririk?

Energia eraginkortasuna hobetzeari eta etxebizitzetan energia berriztagarriak integratzeari begirako kenkari berri bat dago, %15eko dena eta 3.000 eurora arteko muga duena. Era berean, mugikortasun iraunkorrari dagokionez, kenkari berri bi daude: zero isuriko ibilgailuak erosteagaitiko hobaria da bata, %10eko, eta ibilgailuak kargatzeko puntuak instalatzeagaitikoa bestea, %15eko.

Ipini ditzagun mahai gainean kasu praktikoak: demagun lagun batek dirua utzi didala auto berri bat erosi ahal izateko. Zertan eragingo dio horrek lagunari eta zertan eragingo dit niri?

Mailegu bat baldin bada, interesik bakoa, ez dago eraginik. Baina hori horrela izan dadin, mailegu horren berri eman behar zaio Ogasunari, 600 inprimakia beteta eta aurkeztuta.

Seme edo alaba bat izan dugu. Zer izan behar dugu kontuan?

Zergadunagaz bizi den lehenengo seme-alabarentzat 668 euroko kenkaria eskatu daiteke. Kopuru hori oso-osorik aplikatzen da jaiotze hilea edozein izanda ere; hau da, proportzionaltasunik barik. Era berean, sei urtetik beherako seme-alaba bakoitzeko

386 euroko gehigarriak eskatu daitezke.

Demagun bikotekidea eta biok bannandu egin garela. Seme-alabak tarteko badira, nor desgrabatzen du?

Seme-alaben zaintza zelan geratu den aztertu behar da horretarako.

Herentzia bat jaso dut. Zertan eragingo dit?

Ez du ezelango eraginik. Ez dio errenta aitorpenari eragiten.

Zelan lagundu diezaguke abokatu batek, aditu batek, errenta aitorpena egiten? Zertan igarriko dugu aldea?


Zergak oso kontu teknikoak dira, eta kasuistika hain da zabala ze, bakoitzak bere berezitasunak dituela. Horregaitik, egoera bereziren bat suertatzen denean, berezitasun hori aditu batez lantzea komeni da. Berezitasunik bako aitorpenak dira gehienak, salbuespen edo ñabardurarik bakoak. Baina etxeen salmenta tarteko dagoen edo dibortzioak daudenean, tratamendu fiskala oso bestelakoa izaten da. Asko konplikatuak dira kontuak.

Egoera asko aldatzen da?

Adibidez, jende askok ez daki ondasunak handitzerakoan gastu batzuk txertatu daitezkeela, eta, ondorioz, ordaindu beharrekoak murriztu egiten direla. Urtea arrunta izan bada eta nominak kobratu bakarrik egin badugu, hor ez dago aparteko kenkaririk. Alabaina, berezitasunen bat baldin badugu, eta gure kasuistika zenbat eta zabalagoa izan, orduan gugana etortzea komeni da. Ogasunak guri bidaltzen digun aitorpena ondo eginda dator normalean, baina berezitasunen bat badago, orduan, guri dagokigu horiek adieraztea.

"Nobedadeetarikoz bat da iaz kontratu bat baino gehiago eduki izanak ez duela eragingo"

"Etxebizitzari dagokionez, 30etik 36 urtera arte handitu da %35eko hobaria"



"Egiatzat ematen diren gaietan gezurrarekin jokatzeko apustua egin dugu"

MIKEL MARKEZ IBARGUREN MUSIKARIA

Musikari errenteriarrek Berrizko Kultur Etxean abestuko du disko berriaren aurkezpen biran, zapatuan

Jone Guenetxea BERRIZ

Mikel Markez musikariak (Errenteria, 1971) gezurraren eta egia-
ren artean dantza egiteko moduko lana kaleratu berri du. Txanponaren alde biei buruzko hausnarketa egiteko, disko berrian bederlatz bertsolari-gaz elkarlanean aritu da. Xabier Amuriza da letrak sortzeko lanetan kolaboratu duen bertsolarietarikoa. Eta, zelan ez, Markezek Berrizko Kultur Etxean egingo duen aurkezpenean Amuriza ere oholta gainera igoko da zapatuan.

'Gezurri zor'. Izenburu indartsua da. Nondik sortu zen ideia eta zer esan gura du?

Edozein gairen inguruan hausnartzen dugunean, ironiaren eta burlaren joko hori oso interesgarria iruditzen zaigu. Gezur bati buelta emateko modurik ederrena esan nahi den horren kontrakoa esatea izaten da askotan. Lan honetan, gizartearen egiatzat ematen diren hainbat gairen inguruan gezurrarekin jokatzeko izan da apustua edo hasierako abiapuntua.

**Desinformazioaren garaian, egia-
ren eta gezurraren artean hari fin bat dago.**

Bai, bai, guztiz. Politikari begiratzen badiogu, edo komunikabideetan ikusten dugunari, askotan gezurra esaten da jakinda gezurra dela. Jendeak hori entzuten du jakinda gezurra dela, baina egiatzat ematen da. Oso fenomeno berezi bat gertatzen ari da diskurtso mailan. Gero, irudien munduari begiratzen badiogu, adimen artifizialarekin jada ezin zara fidatu ikusten duzunarekin ere. Historiaren oso momentu konkretu batean gaude, eta ez dakigu hemendik aurrera egiaren eta gezurraren kontzeptu hori betirako aldatuko den.

Disko honetan hainbat bertsolari bidelagun izan duzu letrak sortzeko.

Proiektu honetan bederlatz gezur hartu ditugu eta bederlatz bertsolari proposatu diegu bakoitzaren inguruan bertso sorta bat sortzea. Gainera, bederlatz bertso sorta horiek metrika eta doinu ezberdinekin osatu ditugu. Doinu guztiak berriak dira eta ni arduratu naiz horiek sortzeaz.

Zelakoa izan da bertsolari horiekin egindako lanaketa?

Hasierako lana Alaia Martinekin gezur horiek identifikatzea izan zen. Gero, nori zer eskatu pentsatu genuen, bertsolari bakoitza gai horrekin eroso egon zedin. Adibidez, Andoni

Egañari bizitza osoan euskalgintzan lanean dabilen artista baten erretratua egiteko eskatu genion, jaiotzatik zahartzarora arte. Jon Maiarekin askotan esaten diguten hori jorratu genuen: "Zuk hain ondo jakinda gaztelaniaz, zergatik ez duzu gaztelaniaz kantatzen?". Gure herri txikiko gauzak utzi eta munduko hiritar izateko gezur hori. Ane Labakarekin "aita espektakularren" gaia landu dugu: nola saritzen den aitak egiten duen edozein keinu txiki. Beñat Gaztelumendirekin Hirutxuloko Hiria landu dugu. Donostiaren irudi bukolikoaren atzean zein beste itzal dauden. Oihane Aranarekin "Etorkezuna zarete" landu dugu: gazteei etorkizuna beraien esku dagoela esaten zaie, baina, gero, bizitza aurrera ateratzeko dituzten zailtasunak ikusten ditugu. Odei Barrosorekin hasieran aipatu dugun guztia: irudiak, politika, trikimailuak... Xabier Amurizarekin "Lau egia", bertsolariaren barruko gezur batzuk identifikatuz. Alaia Martinekin diskoa borobiltzen duen sorta orokorrako bat osatu dugu. Jon Sarasuak euskararen inguruko gezurrak aipatzen ditu, nola askotan uste dugun euskaraz ari garela baina erdi erdaraz ari garen.

Kolaborazio guztien artean, Berrizera etorrira, Xabier Amuriza dugu. Kontzertuan Xabier bera izango da?

Hasieran egiten ari garen aurkezpen hauetan, emanaldi bakoitzera bertsolari bat gonbidatzea da gure asmoa. Berriz Xabier Amuriza izateko aukera dugu eta berak saioa testuinguruan jarriko du, bere bertso sorta azalduko du. Amaieran, animatzen bada, inprobisatu dezan ere eskatuko diogu. **Zelan planteatzen dituzu kontzertu hauek?**

Hirukotea goaz: Arkaitz Mine-
rrek mandolina eta biolina joko ditu; Iker Laurobak baxua, teklatua eta gitarra; nik gitarra jo eta abestu egingo dut. Hirurok egongo gara agertokian, eta baita Xabier Amuriza ere, gonbidatu.

Letrak zelan sortu diren aipatu duzu, baina doinuak zureak dira. Ez da erraza izango metrika ezberdinei doinua ipintzea.

Hor kontuan izan dudana gauzarik garrantzitsuena prosodiari begiratzea izan da. Xabier Lete izan dugu erreferente alde horretatik: berak kantua hiz-

ketan bezala egiten zuen, entzuteko erraza. Nik ere joera hori erabili nahi izan dut, doinuak entzuteko eta erabiltzeko errazak izan daitezkeen, bertsolarietara ere plazetan erabil dituzaten, nahi badute.

Zer formatutan kaleratu duzu diskoa? Biniloa ere laster kaleratuko duzu.

Bai, Digipack-ean (CD) eta biniloan. Biniloak pixka bat gehiago tardatzen du fabrikatzen iristen, baina laster egongo da denda guztietan eta Interneten eskuragarri. Plataforma digitala ere badago entzungai.

Eta kontsumitzaile legez, Mikel, zer formatu duzu gustuko?

Nik biniloa erosten dut. Etxean badut platoa eta oso erritual erromantikoa iruditzen zait: diskoa jarri, entzun, buelta eman... gure belaunaldian horrela hasi ginen eta niretzat berezia da.

Kontsumitzaile legez, zelan ikusten duzu gaur egungo musikaren panorama, batez ere Euskal Herrian?

Aldaketa sakona izan da eta oraindik ez dakigu nora goazen. Adimen artifiziala dator. Gainera, gazteek arreta gutxiago mantentzen dute gauza bakarrean, dena oso azkar doa. Bestalde, ekitaldi handien garaia dela dirudi. Uste dut indar erakustaldi handiak garrantzitsuak direla, baina herri baten benetako muskulua emanaldi txiki eta ertainetan dagoela, eta horiek zaindu behar ditugula: kultur etxeetako saioak, zineetakoak... Horren aldeko apustua egin behar dugu.

Amaitzeko, berriztarrei gonbita. Noski! Berriztarrei eta ingurukoei, Arkaitz, Iker eta hirurok egongo gara, Xabier Amurizarekin batera.

"Prosodiaren joera erabili nahi izan dut, kantua hizketan izango balitz bezala"

"Alaia Martinekin bertsolarietara planteatzeko gezurrak identifikatzea izan zen hasierako lana"

VI. Labur Esanda Durangoko film laburren lehiaketa antolatu dute astebururako

Jone Guenetxea DURANGO
Apirilaren 17an eta 18an, Durangoko film laburren lehiaketak inguruetakoz zinemazaleak batu ditu. Berbaro euskara elkarteak antolaturiko ekimena erreferente bihurtu da film laburren zaletzat. "Aurten urteroko dinamika mantenduko dugu eta iazko nobedadei ere eutsiko diegu", azaldu dute elkarteko arduradunek.

Gaur arratsaldean, 16:00etan, taldeek gai bat, objektu bat eta esaldi bat jasoko dituzte. Horiek

Gaur arratsaldean, 16:00etan, taldeek gai bat, objektu bat eta esaldi bat jasoko dituzte

kontuan hartuta, 24 ordu izango dituzte film laburra pentsatu, grabatu eta ekoizteko. Apirilaren 18an, zapatuan, 16:00etan, filmak entregatu beharko dituzte. Horren guztiaren ondoren, 22:00etan emanaldia eta gala egingo dituzte Plateruenean. Aurten ere, parte hartzaileek sari ederrak izango dituzte; guztira 700 euro, eta, iazko arrakasta ikusita, 20 urtez azpiko saria mantentzea erabaki dute.



lazko edizioako film laburren lehiaketako argazki bat.



BBK Live jaialdia.

Durangok 'BBK Live Herrian' jaialdia hartuko du maiatzaren 30ean

J.G DURANGO

Durango BBK Live Herrian jaialdiaren agertoki izango da maiatzaren 30ean. Udalak iragarri duenez, zuzeneko musikaz beteko dira herriko kaleak. Hamar bat kontzertu programatu dituzte, doan.

Bilbao BBK Live jaialdiak urteak daramatza formatu txikiagoko kontzertuak hiriburutik kanpoko udalerrietara eramaten, eta aurten Durango izango da geltokietariko bat. Eskualdeko herriburuagaz batera, Bilboko San Inazio auzoan (ekainaren 6an) eta Kobetamendin (ekainaren 7an) egingo dituzte antzera bateko emanaldiak, Hirian eta Mendian jaialdiak. Jaialdi na-

gusia uztailearen 9tik 11ra izango da, Bilbon.

Durangoko Udalak udalerrria "Euskadiko erreferente kultural legez sendotzeko apustua" egin duela dio. Herrian egingo duten moduko egitasmoekin kalitatezko kultur jarduerak eskaini gura dizkiete durangarrei eta bisitariei.

Udalak aurreratu duenez, hamar bat kontzertu programatu dituzte, doan

GAI LIBREAN



ESTI ALBIZU GOIKOETXEA
BIZENTA MOGEL

Papera ukitzeak sortzen duen magia

Apirilaren 23an Liburuaren Eguna ospatuko dugu; hori dela eta, komeni da liburuak objektu gisa duen balioa gogoratzea. Liburuak ez da soilik informazioa gordetzen duen tresna bat; esperientzia emozional bat pizten duen objektu berezia da. Azala ukitzean, orriak pasatzean edo papera usaintzean, zentzumenek berehala erantzuten dute, eta une horretan hasten da irakurketaren magia.

Liburu fisiko batek sortzen duen emozioa berezia eta ordezkaezina da. Pantaila baten bidez irakurtzeak erraztasuna eskaintzen badu ere, paperezko liburu batek sortzen duen lotura sakonagoa da askorentzat. Irakurtzen dugun bitartean, orrialde bakoitza aurrera eramateak aurrerapenaren sentsazio fisikoa ematen du, eta istorioaren barruan murgiltzea errazten

du. Liburuak gure eskuetan pisua du, eta pisu horrek istorioaren garrantzia azpimarratzen du.

Pandemia garaia mugarri bat izan zen askorentzat; isiltasunak eta bakardadeak etxea bete zuten une hartan, liburu elektronikoa gure egunerokoan sartu zen ia oharkabean. Egunak motelago igarotzen ziren, eta pantailak bihurtu ziren leiho nagusi. Hala ere, une xume baina hunkigarri batek beste zerbait gogorarazi zidan.

Nire seme nagusia ikusi nuen liburu digitala arretaz irakurtzen, baina aldi berean azpian zuen liburu fisiko baten orriak laztantzen zituen, keinu instintibo eta goxo batez. Une hartan ulertu nuen irakurketak ez duela soilik istorioak kontsumitzea

esan nahi: ukimena, presentzia eta lotura ere badira. Irudi hura bi munduen arteko zubi isila izan zen.

Gainera, liburuek oroitzapenak gordetzen dituzte. Irakurritako uneak, lekuak edo bizipenak haiekin lotuta geratzen dira. Askotan, liburu zahar bat irekitzean, iraganeko momentu batera bidaiatzen dugu, orri artean gordeta balego bezala.

Horregatik, Liburuaren Eguna ez da soilik irakurketaren ospakizuna; liburuaren objektu izaeraren omenaldia ere bada. Liburu bat eskuetan hartzea, bere orriak sentitzea eta bertan murgiltzea esperientzia intimo eta aberasgarria da, eta horrek egiten du irakurketa benetan ahazteazina.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEN EGUERDIA BAINO LEHENAGO.
946 232 523 / agenda@anboto.org

BARIKUA 17

- **ABADIÑO Sugo**
Kontzertua. Amaraun Arte Fabrikan, 19:30ean.
- **DURANGO Diziplina anitzeko erakusketa** Rai Bikandiren argazki, bideo eta eskultura erakusketa. Ezkurdi aretoan, apirilaren 19ra bitartean.
- **DURANGO Tailerra**
Umeentzako marrazki tailerra Uxue Egiagaz. Izena eman behar da, Otamotzena auzogunean, 17:30ean.
- **ELORRIO 'Desobedientek 18/98'**
Ttanta konpainiaren antzezlan. Arriola antzokian, 20:00etan.
- **IURRETA 'Ipuin porrusalda'** Amaia Egidazu ipuin kontalaria. Hiru urteko gorako umeentzat (3-5 urteko umeak heldu batek lagunduta). Herri bibliotekan, 18:00etan.
- **IURRETA 'Abdukzioa, ke barbaridad'** Antzerkia Arrapaladan antzerki taldearen eskutik. Ibarretxe kultur etxean, 19:00etan.
- **IURRETA Bakarrizketak** Antton Telleria eta Julen Pagazaurtundua. Abadetxean, 20:00etan.
- **ZORNOTZA 'Ura eta kolorea'** Ruben Alvarez 'Rubencio'-ren akuarelek osatzen duten erakusketa zabalduko dute. Zelaieta Zentroan, apirilaren 30era bitartean.

ZAPATUA 18

- **BERRIZ World Cafe: Emakumeen Etxeak**
Emakumeen Etxeen esperientziak ezagutzeko jarduerak, eta Berrizen prozesuari hasiera emateko saio irekia. Nagusien Etxean, 10:30ean.
- **BERRIZ 'Berdin eta desberdin, mila ipuin'**
Ipuin Txokoa, Anduriña eta Txeforen eskutik. Kultur Etxean, 12:15ean.

- **BERRIZ 'Gezurari zor'**
Mikel Markez eta Xabier Amuriza. Kultur Etxean, 19:00etan.
- **BERRIZ Meison + Dena**
Hiltegitxe gaztetxean, 22:00etan.
- **DURANGO Bonustrack jaialdia** Soziedad Alkoholika + The Toy Dolls + Segismundo Toxicomano + Kaotiko + Kaos Urbano + El ultimo ke zierre + Josetxu Piperrak + Juanxo Skalari + Manifa + Alfredo Piedrafita + Dinamita + Disolventex. Landako Gunean, 10:00etatik 02:00etara.
- **DURANGO Tailerra**
Mendian artzain makila erabiltzeak dakartzan abantailak ezagutzeko aukera eskainiko du Alpino Tabira mendi taldeak Atxarten. Izena emateko epea zabalik dago (www.alpino-tabira.org) Plazak mugatuak dira.
- **DURANGO 'Viva'** La Locquace Cie konpainiaren antzezlan. San Agustin kultur gunean, 19:00etan.
- **DURANGO Dantzaro**
Erromeria Lorratz taldeagaz. Andra Mariko elizpean, 19:00etatik 21:00etara.



CALEIDOSCOPIO TEATRO

ELORRIO Antzerkia Caleidoscopio Teatro bere obrarik sarituena taularatuko du domekan. Umeei zuzendutako 'Sesamo, ireki zaitez!' lanak istorio txikiz osatutako unibertso magikoa erakusten du. Arriola antzokian, apirilaren 19an, 16:30ean.

- **GARAI Iñaki Bermudez eta Yume Takasaki**
Saxofoi-jotzaile euskaldunak eta pianista japoniarak kontzertua emango dute. Elizabarrin, 19:00etan.
- **GARAI VI. Sagardo Eguna**
Txotx irekiera bertsolariekin, Trumoitte kultur elkarteak antolatuta. Herriko plazan, 19:00etan. Euria eginez gero, frontoian.
- **OTXANDIO Udaberri jaia**
Karpoteoa, 13:00etan. Bazkaria Pasealekuan, 14:30ean. Ondoren, jolasak. Bidenabar taldea, plazan, 18:00etan. Kontzertua: 721 + Mateo Zikuta eta El Garto + MJ Aforrau, Gaztetxean, 23:00etan.
- **ZORNOTZA 'Calla y come'**
La Cocina konpainiaren eskutik. Zornotza Aretoan, 20:00etan.

DOMEKA 19

- **ABADIÑO Ke lepo + Felix Buff** Kontzertua. Amaraun Arte Fabrikan, 13:30ean.
- **ABADIÑO Mendi bazterrek garbitzera deialdia** Ibilbidea: Zelaieta-Mendilibar-Untzilla-Larrigan-Atxarte-Zelaieta. Alluitz mendi taldeak lagunduta antolatutako jarduerak, adin guztietako herritarrei zuzenduta (hamaiketako

- antolatzaileen esku). Izena emateko: eajuria@abadiano.eus. Ferialeku Plazan, 09:30ean.
- **GARAI XII. Landara eta lorazaintza azoka**
Plazan, 10:00etatik 15:00etara. Euria eginez gero, frontoian.
- **ZORNOTZA Otxoteak**
Durangoko Astarloa otxoteak eta Zornotzako Otxoteak jardungo dute kantantzen. Txiri-Txiri, Singing, Sukoi, Oasis, Vene's, Lopena, Guria eta Urtza tabernetan, 11:30ean hasita.
- **ZALDIBAR Akuarela tailerra aire zabalean**
Eñaut Aiartzaguenak gidatutako tailerra. Zaldibarko X. Mendi Jardunaldien barruan. Liburutegi zaharrear, 11:00etatik 12:30era.

MARTITZENA 21

- **IURRETA Udaberri literarioa** Irakurketa Txokoaren irekiera eta Udaberri Literarioaren aurkezpena. Abadetxean, 18:30ean.

EGUAZTENA 22

- **ABADIÑO 'Inora ez zihon bidean'** Ipuin kontaketa Maite Franko ipuin kontalariaren eskutik. Errota kultur etxean, 17:00etan.
- **BERRIZ 'Gu ere bagara!'**
Erakusketaren irekiera. Kultur Etxean, 18:00etan.
- **DURANGO 'Ekologia pirata baten alde'**
Liburu aurkezpena, Leire Mendibururen eskutik, Erika Lagomaren laguntzagaz. Hitz liburu dendan, 19:00etan.
- **MAÑARIA 'Zer gertatzen da basoan'** Ipuin kontaketa Maider Alcelay ipuin kontalariaren eskutik. 4-8 urte bitarteko umeentzat. Liburutegian, 18:00etan.

EGUENA 23

- **ABADIÑO 'Genio y figura'** Vidda Priegoren bakarrizketa. Amaraun Arte Fabrikan, 19:30ean.

- **ABADIÑO '1936ko gerraren oihartzuna'**
Abadiñarren testigutzak batzen dituen liburuauren aurkezpena. Errota kultur etxean, 19:00etan.
- **BERRIZ Liburuaren Nazioarteko Eguna** LHko umeentzako tailerrak. Kultur Etxean, 17:00etatik 18:30era eta 18:30etik 20:00etara.
- **MAÑARIA 'Adimen artifiziala'** Berbaldua. Hizlaria: Leire Legarreta, EHUKo Matematikako doktorea. Kultur etxean, 18:00etan.
- **DURANGO Helduentzako eskulan tailerra** Usaindun sojako kandelak egingo dituzte Ane Miguelegaz batera. Aurretik izena eman auzogunean, 17:00etan.
- **ZALDIBAR 'Lesotho bizikletaz'** Igone Mariezkurrenak bizikletan bizitzeko esperientzia kontatuko du. Zaldibarko X. Mendi Jardunaldien barruan. Liburutegi zaharrear, 18:30ean.
- **ZALDIBAR Tailerra**
Berbalagunek antolatutako pasta tailerra. Udaletxeko aretoan, 18:00etan.

BARIKUA 24

- **BERRIZ Gar** Jon Garcia Zabalak 'Oraina gezurretan' diskoa aurkeztuko du. Kultur Etxean, 21:00etan.
- **DURANGO Erakusketa**
Durangaldeko Artisten elkarteko kideen lanak. Ezkurdi aretoan, maiatzaren 3ra bitartean.
- **DURANGO Bartolome Ertzilla Orkestra Sinfonikoa** Kontzertua. San Agustin kultur gunean, 19:30ean.
- **ELORRIO 'Saeta'**
Javier Aranda aktoreak aurkeztutako antzezlan. Arriola antzokian, 20:00etan.
- **ELORRIO Rances + MRS. Klams** Kontzertua. Gaztetxean, 23:00etan.
- **IURRETA 'Xirristi mirristi'**
Helduentzako ahozko narrazioa Erica Liqueteren eskutik. Herri bibliotekan, 19:00etan.
- **IURRETA Auzolana**
Abadetxean, 17:00etan.

ZINEMA

BERRIZ

KULTUR ETXEA

Chirps, Honey Hillesko ikertzailea
Domeka 19: 17:00.

DURANGO

SAN AGUSTIN
KULTURGUNEAN

Aitatxo
Barikua 17: 18:30

ZUGAZA ZINEMA

No te olvidaré
Barikua 17: 18:00, 20:30.
Zapatua 18: 20:30.
Domeka 20: 19:30.
Astelehena 20: 17:45, 20:15.
Martitzena 21: 17:45, 20:15.
Eguaztena 22: 19:00.
La familia Beneton +2
Barikua 17: 18:00, 20:30.
Zapatua 18: 16:30, 18:30, 21:30.
Domeka 19: 17:00, 19:30.
Astelehena 20: 17:45, 20:15.
Martitzena 21: 17:45, 20:15.
La momia de Lee Cronin
Barikua 17: 18:00, 20:30.
Zapatua 18: 18:30, 21:30.
Domeka 19: 17:00, 19:30.
Astelehena 20: 19:45, 19:35.
Martitzena 21: 19:45, 19:35.
Eguaztena 22: 19:00.
Super Mario Galaxy 3D
Zapatua 18: 17:00, 19:30.
Domeka 19: 16:30.
Turandot (opera)
Eguaztena 22: 19:00.

ELORRIO

ARRIOLA ANTZOKIA

Una hija en Tokio
Zapatua 18: 20:00.
Domeka 19: 20:00.
Astelehena 20: 20:00.

ZORNOTZA

ZORNOTZA ARETOA

El último vikingo
Barikua 17: 20:00.
Domeka 19: 20:00.
Astelehena 20: 20:15.
Hoppers
Domeka 19:17:00.
Kontinental'25 (J.B.)
Martitzena 21: 19:00.



Euskal Selekzioa osatu duten pilotari, kide eta ordezkariek.

Eskualdeko pilotariek zaku bete domina munduko pilota txapelketan

Egoitz Amantegi, Ainhoa Ruiz de Infante, Lier Arrien eta Ibai Arroitauregi Euskal Selekzioagaz aritu dira, Argentinan

J.D. DURANGALDEA

Zortzi domina irabazita, eurentariko lau urrezkoak, Euskal Selekzioak parte hartze arrakastatsua izan zuen sei egunez —apirilaren 6tik 12ra— Mendozan (Argentina) lehiatu zen munduko pilota txapelketan. "Emaitza ezin hobekak izan dira eta ezin zaie gehiago eskatu euskal pilotariei. Gurek txapelketa bikaina egin dute", baloratu dute Euskadiko Euskal Pilota Federaziokoek Argentinan aritu diren euskal pilotarien lana.

Txapelketa lau modalitatetan jokatu zen: Esku Pilotako Konfederazio Internazionalako Joko Internazionala, One Wall eta Llargues modalitateetan eta Argentinako 4 Paredes modalitatean. 32 lagunek osatu zuten euskal espedizioa, eurentariko 22 pilotariak. Pilotarierikoa lau Durangaldekoak izan ziren: Ainhoa Ruiz de Infante otxandiarra, Lier Arrien zornotzarra, Egoitz Amantegi abadiñarra eta Ibai Arroitauregi iurretarra. Honako hau izan da eskualdekoen uzta: Ruiz de Infantek urrezko hiru domina

irabazi zituen, Amantegik urrezko bat, zilarrezko bi eta brontzezko bat, Arroitauregik zilarrezko bat eta brontzezko bat, eta Arriek zilarrezko bat eta brontzezko beste bat.

Txapelketak balio berezia izan zuen euskal selekzioarentzat, nazioarteko lehiaren presentzia sendotzen jarraitzeko beste urrats bat izan zelako. Izan ere, Mendozako hitzorduan hainbat herrialdeko selekzioen aurka aritu ziren (Herbehereak, Frantzia, Ingalaterra, Argentina, Kolonbia, Ekuador, Venezuela, Puerto Rico, Txile...), Euskal Selekzioak nazioartean duen maila neurtzeko aukera baliatuta. Horrez gainera, federazioak nabarmendu zuen halako txapelketek "euskal pilotaren zabal-kundearen eta etorkizuneko belaunaldien motibazioan" ere eragin "positiboa" dutela.

"Hango Euskal Etxea bisitatu genuen. Etxean legez sentitu ginen"

AINHOA RUIZ DE INFANTE EUSKAL SELEKZIOKO PILOTARIA

Euskal Selekzioaren arrakastaren barruan, bereziki emakumeek lortu dituzte emaitza onak: urrezko hiru domina eta zilarrezko bat. Ainhoa Ruiz de Infantek, gehiago edo gutxiago, txapelketako modalitate guztietan parte hartu du.



Ainhoa Ruiz de Infante.

Zein modalitatetan sentitu zara gusturen?

Llargesen. Bote luzearen berdina da, pilota eta kantxa kenduta. Aurrean oso dinamikoa da. Gainera, finalean oso ondo aritu nintzen eta paper ona egiten duzunean gusturago sentitzen zara. Llargesen oso pozik aritu naiz.

Zelakoa da Cuatro Paredes modalitatea?

Lau horma ditu. Trinkete txiki baten modukoa da, teilatu barik. Txapa askoz baxuago dago, ezkerreko zein eskumako aldean fraileak ditu eta zuloa ere badu, trinketean legez. Oso joko bizia da, eta alde bietan frailea dagoenez adi-adi egon behar duzu.

One Wall izan zen urrea lortu ez zenuten modalitate bakarra.

Herbehereetako selekzioaren kontra galdu genuen finala. Ligaxkan erraz irabazi zieten Olatz Arrizabalagak eta Miren Larrartek, baina finalean Herbehereetako bikoteak oso ondo jokatu zuen eta guk ez genuen gure maila eman. Gero, lehenengo setean, 21-20an, polemika apurtxo bat ere izan zen, epaileak buelta bat eman ez zuenean. Tira, bata eta bestea, finala joan egin zitzaigun.

Orokorrean, zelakoa izan da esperientzia?

Esperientzia itzela izan da, ez kirol aldetik bakarrik. Han geundela, Aberri Eguna izan zen eta hango Euskal Etxekoek sekulako harrera egin ziguten. Bertan bazkaldu genuen. Giro euskalduna zegoen eta eurei eskerrak etxean legez sentitu ginen. Ardo bodega bat ere bisitatu genuen, hara joandako nafar batena.



Sinedor Basauri taldea, aurtengo ligako partidu batean. SIDENOR BASAURI

Bizkaiko eta Gipuzkoako eskubaloi txapelkunak Euskal Ligaren bila

Traña-Matienako kiroldegiak Basauriko eta Donostiako taldeen arteko partidu erabakigarria hartuko du zapatuan

J.D. ABADIÑO

Traña-Matienako kiroldegiak eskubaloi partidu garrantzitsu bat hartuko du zapatuan, 18:00etan. Bizkaiko eta Gipuzkoako ligetako txapelkunak aurrez aurre izango dira: Sinedor Basauri eta Donostiako Saieko, hurrenez hurren. Irabazlea probintziako liga nagusitik Euskal Ligara igoko da. Galtzaileari oraindino bigarren aukera bat geratuko zaio ligako bigarren sailkatuaren aurka.

Final bat denez, Euskadiko federazioak kantxa neutral bat

behar zuen norgehiagoka hartzeko, eta Abadiño aukeratu du.

Bi talderik onenak

Sidenor Basaurik Bizkaiko ligako ia partidu guztiak irabazi ditu: 19 garaipen eta porrot bat. Maila horretan ordezkarri bat izan du Durangaldeak ere: Durangoko Ibaizabal. Durangarrek bederatzigarren tokian amaitu dute. Gipuzkoan, Donostiako Saieko eta Egia taldeek lehia estu-estu izan dute. Puntuetan berdinduta amaitu dute liga, baina Saieko aurretik.

Asturiasko hainbat gailur igotzeko aukera Alpinoren eskutik

J.D. DURANGALDEA

Alpino Tabira mendi klubak Asturiasko Ponga parke naturaleko hainbat mendi igotzeko aukera eskainiko du maiatzaren 1etik 3ra. Besteak beste, Tiatordos, (1.937 metro), Lambria (1.681 metro) eta Taranes (1.752 metro) mendiak igoko dituzte. Ekimen honetarako izen ematea apirilaren 21ean, 23an eta 28an egin ahalko da, ohar batean zehaztu dutenez.

Horrez gainera, Bizkaiko Bira egitasmoak ere jarraipena izango du. Apirilaren 26an Balmaseda eta Gordexola lotuko dituzte oinez, eta parte hartzeko izen ematea apirilaren 21ean eta 23an egin daiteke.



Master Kaiola txapelketako aurkezpena, Zornotzako Amorebieta IV pilotalekuan.

Master Kaiola txapelketak goi mailako pilotariak batuko ditu Zornotzan

J.D. ZORNOTZA

Beste urte batez, pilotazaleek Master Kaiola lau eta erdiko txapelketaz gozatzeko aukera dute Amorebieta IV pilotalekuan. Pilotariak hiru kategoriatan banatuko dituzte: nagusiak eta gazteak gizonetan, eta promesen maila nesketan. Gizonen maila bakoitzean 32 pilotari arituko dira: 16na pilotari behetik hasiko dira, bigarren fasean zortzi pilotari berri sartuko dira lehian, eta hirugarrenean beste zortzi.

Durangaldeak hiru ordezkari izango ditu. Gazte mailan, Zornotzako Lagun Onak pilota elkarteke Izkander Torralba (hirugarren fasean) eta Aner Garmendia (lehenengo fasean);

nagusietan, Lemoako klubean dabilen Faben Ituarte atxondarra (bigarren fasean).

Emakumeetan promesen aldeko apustua egin dute aurten. Zortzi pilotari gazte arituko dira: bina ordezkari Bizkaitik, Gipuzkoatik, Arabatik eta Nafarroatik. Bizkaiko ordezkari bat Irati Benito izango da, martxoan gazte mailako binakako Master Cup txapelketa irabazi zuen zornotzarra.

Joan zen asteburuan jokatu zen lehenengo jardunaldia. Aurrerantzean, hile bian, zapatu arratsaldero eta domeka goizeko egongo dira partidua. Finalerdia ekainaren 13an eta 14an dira, eta finalak ekainaren 20an.

Buruzko buruko txapelketako partidua Durangon, apirilaren 25ean

J.D. DURANGO

Buruz buruko pilota txapelketa martxan da eta Durangoko Ezkurdi Jai Alai pilotalekuak final-laurdenetako ligaxkako partidua bat hartuko du apirilaren 25ean, 17:15ean. Iñaki Artola izango da protagonistetarikoa bat. Alegiarrak final-laurdenetan ekin dio txapelketari. Orain arte, partidua bat jokatu eta galdu egin du Larrazabalen aurka: 17-22. Peña II edo Zabala izango du aurkari. Bi hauek elkarren kontra jokatu dute zapatuan, Labriten. Pilotari biak kanporaketa bat gaudituta sailkatu dira ligaxkara.

Durangoko jardunaldian binakako partidua bat ere egongo da ikusgai: Elordi eta Gabirondo Bakaikoaren eta Imazen aurka. Sarrerak 'entradasfronton.com' webgunean eskuratu daitezke.



Iñaki Artola pilotaria. BAIKO



18 elkartetako 72 pilotarik ekin diote txapelketari. LUIS ITURRIOZ

Euskal Jaiak zesta-punta txapelketa martxan da Durangoko Ezkurdi Jai Alain

J.D. DURANGO

Joan zen zapatuan, Durango Jai Alai (DUJA) elkarteak antolatzen duen Euskal Jaiak zesta-punta txapelketaren 22. aldiari ekin zioten. Aurretik beste 15 jardunaldi geratzen dira ekainaren 6ko finalera heldu arte. Jardunaldiak asteburuetan jokatu dituzte; zapatuetan 17:30ean hasiko dira, eta domeketan 10:30ean. Sarrera doakoa da.

18 elkartetako 72 pilotarik hasi dute txapelketa. Kanporaketa formatuan jokatu dute eta aurre-fase bat egongo da 16tik 20 urtera arteko mutilez osaturikoa. Hauek final-laurdenetako plaza biren bila lehiatuko dira, eta bertan maila

goreneko beste sei bikote izango dituzte zain.

Ekitaldiak musikaz girotuta egongo dira eta irabazleen artean 1.500 euroko diru sariak banatuko dituzte, DUJA elkarteak ohar batean jakinarazi duenez.

Sustraiak gogoratu

Ekainaren 6ko finaletan, euskal pilotako Joko garbi modalitateko partidua bat jokatzeko ere itzaroten dute DUJAko kideek. Joko garbi modalitatea zesta-puntaren aitzindaria izan zen eta Ezkurdi pilotalekua modalitate honetako partidua bat egaz inauguratu zen 1889. urtean, 'Chiquito de Eibar' orduko pilotari handiagaz.

JOKALDIA

ALFONSO ARROIO
MONASTERIO

Epilogo

Agurren Itzulia izan da aurtengoa. Euskal Herriko ziklismoaren aro distiratsu bateko ordezkari bitzuen ibilbide profesionalaren amaieraren iragarpena izan da. Bata zein bestea eredu bizikleta gainean, baita bertatik kanpo ere. Ispilu izan beharko lukete belaualdi berrientzat. Langileak, profesionalak, errespetua erakusten duten kirolariak eta hitz txarrik izan ez duten horietakoak, goitik beherako pertsonak alegia.

Bizkaitarra eta gipuzkoarra, euskaldun peto-petoak eta nazioartean beraien jatorria behin baino gehiagotan aldarrikatu dutenak. Tourrean, Giroan, Vueltan edo Itzulian garaipen handiak eskuratu dituzten arren, euren izaera ez da aldatu. Izaera xaloa ez dute galdu. Hunkitu egin dira helmugako azken arrastoa igaro dutenean. Zenbat oroitzen, zenbat bizipen... Zaila behar du jardun profesionalaren amaierara iristen

zabiltzala onartzea eta are zailagoa noiz bukatuko den erabakitzea. Haurtzarotik gehiago ez dute besterik izan buruan, hots, ametsa bete eta profesional gisa aritzea. Euskaltel-Euskadi historikoak emandako hondarreko uzta dira. Agortzeaz dagoen uzta da; hirugarren fruitu batek ez du bere taldean jarraituko datorren urtean.

"Goi mailako ziklistak izan dira, garaileak, itzuli handi zein txikietan nabarmendu direnak. Hori amaitzen ari da gure zoritxarrerako"

Une hau iritsiko zela jakitun ziren guztiak. Goi mailako ziklistak izan dira, garaileak, itzuli handi zein txikietan nabarmendu direnak eta hori amaitzen ari da gure zoritxarrerako. Aleka ziklista onak agertuko dira baina zaila izango da utziko dutenen mailara iristea. Ondo ureztatuta izan dugu euskal ziklismoa, baina epe ertainera begira lehorrea datorrigulakoan nago. Gaizki ohitu gaituzte eta beraiek utzitako hutsunearekin zer eman diguten konturatuko gara. Hain herrialde txikia izanda, zenbat txapelkun eman dituen kirol honek. Goza dezagun denboraldia bukatu arte eskainiko digutenarekin. Epilogo idazten ari dira, urrezko hizkiz gainera. Pello eta Jon dira, guztiaren gainetik pertsonak. Goza dezatela bizimodu berriarekin eta beraien jakituria transmititzen ahalegindu. Dotorea benetan bion despedidea.

TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI

NON GERATZEN DA
10 EGUNEZ
KORRIKAK
EMATEN DIGUN
BOTEREA
DATOZEN
BI URTETAN?



GUARDIAKO BOTIKAK

APIRILAK 17, BARIKUA

09:00-09:00
Etxebarria, Montevideo etorb. 2. - Durango
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

APIRILAK 18, ZAPATUA

09:00-09:00
Bazan, Uribarri 5 - Durango
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

APIRILAK 19, DOMEKA

09:00-09:00
De Diego, Inbaurrondo 22. - Durango
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

APIRILAK 20, ASTELEHENA

09:00-09:00
Sagastizabal, Askatasun etorb. 19 - Durango
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

APIRILAK 21, MARTITZENA

09:00-09:00
Navarro, Artekalea 6 - Durango
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

APIRILAK 22, EGUAZTENA

09:00-09:00
Balenciaga, Ezkurdi plaza 8 - Durango
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

APIRILAK 23, EGUENA


09:00-09:00
Gaztelumendi, J.A. Abasolo 2 - Durango
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

24 orduz zabalik dauden farmaziak daude zerrendan. 22:00 arte zabalik daudenak ere ikusteko: www.anboto.org/botikak

ZORION AGURRAK



Amale
Zorionak, sorgintxo, etxeko danen partez! Asko maite zaitugu!



Lier
Zorionak, Lier! Martxoaren 25ean 12 urte egin zenituen. Jarraitu zaien moduko jatorra izaten. Mosu haundi bat familiako danon partez!



Naia
Zorionak, Naia! 16 urte iada! Asko disfrutau zure egune eskiatzen lagunekin! Itzi inderrak familiakin zelebrazteko laster be bai! Asko maite zaitugu! Arrianditik musu asko.



Galder eta Eñaut
Zorionak, Galder eta Eñaut! Martxoan 4 eta 2 urte egin dituzue, mutil handiak zarete! Musu erraldoi bat familiaren partez.

GOZATU
GOZOTEGIA

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
661 401 400
Gozatu Gozotegia
gozatugozotegia



Zorionak Adei (1057.alea)! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko btxetela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan.

Urte askotarako!

Zorion-agurra jartzeko, hiru bide:

- Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta Anboto.org/zorionagurra helbidean sartu zorion agurra.
- Mezua bidali agenda@anboto.org helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urteguna eta gura duzun testua.
- Etorri zaituz Anbotoren ordezkaritzara edo deitu 946 232 523 telefonora.

Marmarra

ATX Teatroa
Apirilak 25, larunbata
19:00etan

Sarrera orokorra 10€
7,50€ bazkideentzat



Sanagustinalde, 12 - Tel.: 946 030 021 - sanagustin@durango.eus

San Agustin
KULTUR
GUNEA


AGORA
EZAGUTZAREN PLAZA

ZAINTZAILEEN BAKARDADEA
PREBENITZEKO ETA OSASUNA
HOBETZEKO GAKOAK

HIZLARIAK
IDOIA IMAZ ARAMBURU
BEATRIZ SAN MARTIN GAMBOA

Martxoak 10 - 18:30

Gaztelumendi
Izena ematea beharrezkoa da



Bitartekaria



Antolatzailea



Iurreta
Gaztelumendi Urdan
HERRI AGINTARIA

INMOBILIARIAK

 <p>ETXETXO INMOBILIARIA F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 - DURANGO www.inmoetxetxo.com</p>	 <p>AMBOTO INMOBILIARIA Sanagustinalde, 4 - 1.ºz. - 48200 DURANGO</p>	 <p>ISD Inmobiliaria del Duranguesado Askatasun etorb. 10 - DURANGO - 946 816 666 www.inmoduranguesado.com inmoduranguesado@gmail.com</p>	 <p>Fernando Uribe AGENCIA INMOBILIARIA Barrenkalea, 15 behe - DURANGO Tel.: 946 816 423 - www.fernandouribe.es</p>
<p>ERAIKUNTZA BERRIA AZOKA BERRI 3 logelako etxebizitzak. Garajea eta trastelekuarekin. 376.000 € -tik aurrera.</p> <p>ARANDONOTORRE Duplexa. Atikoa. 3 logela eta 2 komun. Terrazak. Garajea eta trasteleku. C.E.E=B.</p> <p>AUKERA ERRETENTXU: 62m2-ko lokala. Egokitua. Salgai. 53.500 €.</p> <p>ABADIÑO: Lursaila. Familia bakarreko etxebizitza. 240.000 €</p> <p>SAN INAZIO Garajea. 11.000 €.</p> <p>ALLUITZ Lokala. 70 m2. Egokitua. Erakuslehoia 2 kaletara. 110.000 €.</p> <p>ABADIÑO Gaztelua. Lursaila. 866 m2. Salgai. 29.000 €.</p> <p>ETXEBIZITZAK SALGAI IURRETA: Bixente Kapanaga: 80 m2. 3 logela, komuna eta egongela. Bizitzen sartzeko moduen. C.E.E.=E 140.000 €</p> <p>IURRETA Dantzari. 79 m2. 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Terraza. C.E.E=E 145.000 €.</p> <p>OTXANDIO: ETXEA. 262 m2. 3 solairu. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Terraza. Garajea eta trasteleku. C.E.E=B 165.000 €.</p> <p>MAÑARIA: 110 m2. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Ikuspegiak. C.E.E=E 250.000 €.</p> <p>BASERRIA, ZORNOTZA: Berriztatua. 436 m2. 3 solairu. 4 logela eta 2 komun. Terrazak. Ganbara. Txokoa beheko suarekin. 4 hektareko lursaila. 470.000 €. C.E.E=F</p> <p>MUNTSARATZ: Baserria. 670 m2. Familiabakarrekoa. 500 m2-ko lursailarekin. C.E.E=F 525.000 €.</p> <p>LOKALAK SALGAI / ALOKAGAI MURUETA TORRE: 44 m2. Kea ateratzeko bidea. 50.000 €.</p> <p>MATIENA: Trañabarren. 60 m2. Salgai, etxebizitzarako aukerarekin. 75.000 €.</p> <p>IZURTZA: Pabilioia. 261 m2. Egokitua. 195.000 €.</p> <p>DURANGO: 100 m2-ko lokala. Alde zaharra. Egokitua. 115.000 €.</p> <p>MASPE: 150 m2-ko lokala. 90.000 €.</p> <p>KOMENTUKALEA: 100 m2-ko lokala. Egokitua. 160.000 €.</p> <p>IURRETA: Bixente Kapanaga. 117 m2-ko lokala. 75.000 €.</p> <p>ASTEPE: 40 m2-ko lokala. 70.000 €.</p> <p>ASKATASUN ETORBIDEA: 60 m2. Lokal egokitua. Kearentzako irteerarekin. 125.000 €.</p> <p>FRAY JUAN DE ZUMARRAGA: 80 m2. Egokitua. Alokairuan. 1.600 €</p> <p>FRAY JUAN DE ZUMARRAGA: 180 m2. Egokitua. Erakuslehoia. Alokairuan. 2.900 €.</p> <p>DURANGO: Bulegoa. Erdialdean. 1.ºgo solairua. 650 €.</p> <p>JUAN MARI ALTUNA: 100 m2. Egokitua. Kea ateratzeko bidea. Alokairuan.</p> <p>GARAJEAK SALGAI ALLUITZ: Garajea. Salgai, 17.000 € / Alokairuan 65 €</p> <p>MENDIZABAL: Garaje itxia. 22.000 €.</p> <p>ASKATASUN ETORBIDEA: Garaje itxia. 20.000 €.</p> <p>MONTEBIDEO: Garajea. 10.000 €.</p> <p>MONAGOTORRE: Garajea. Erdigunean. 13.000 €.</p> <p>PLATERUEN PLAZA: Garajea trastelekuarekin. 22.000 €.</p>	<p>ETXEBIZITZAK SALGAI DURANGO FRANTZISKO IBARRA: 3 logela, egongela balkoiarekin, komuna eta sukaldea. 100 m2-ko terraza handia.</p> <p>GOIENKALEA: 65 m2. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Balkoia.</p> <p>KURUTZIAGA: 3 logela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta komuna. Berriztatzeko.</p> <p>BARRENKALEA: Logela bakarreko apartamentua. Sukaldea, egongela logela eta komuna. Trasteleku.</p> <p>TABIRA: 4 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. 3 balkoi. Argitsua.</p> <p>BARRENKALEA: Logela. sukaldea eta komuna. Trasteleku.</p> <p>GOIENKALEA: 2 logela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta komuna.</p> <p>ATXONDO ATXONDO: 3 logela, sukaldea, egongela ederra eta komuna. 2 balkoi. Igogailua. Gasa.</p> <p>ATXONDO: 3 logela, komuna, komun txikia, despentsa, sukaldea balkoiarekin eta egongela. Ganbara.</p> <p>LURSAILAK SALGAI URRUTXUA: 9 hektareko 2 baso salgai. Errepedearen ondoan.</p> <p>BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI IURRETA: Baserri erdia saltzen da San Markos auzoan. Teilatua berriztatua. Gainontzekoa berriztatzeko.</p> <p>MUXIKA: Urrutxua: 90.000 m2-ko lursaila. Konpontzeko dagoen baserria. 90.000 €.</p> <p>ABADIÑO: Etxezurin kokatua. 300 m2. Berriztatzeko. Lursailarekin. Ganbara.</p> <p>BERRIZ: Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatzeko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareko lursailagaz.</p> <p>MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160m2 solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.</p> <p>BULEGOAK ALOKAIRUAN ABADIÑO 30 m2-tik gorako bulegoak. 350 -tik hasita. Argia eta wifia barne.</p> <p>DURANGO ERMODO KALEAN. 100 m2. 2 bulego alokairuan. Garajearekin.</p> <p>LOKALAK ALOKAIRUAN ALDE ZAHARREAN, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.</p> <p>LOKAL INDUSTRIALA SALGAI MATIENA: 460m2-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.</p> <p>ELORRIO: 600 m2-ko pabilioia salgai. Komunak, aldagelak eta bulegoa. Jantzia. Lanerako prest.</p> <p>LOKAL INDUSTRIALA ALOKAGAI BERRIZ BERRIZ: Eitua industrialdea. 180 m2-ko pabilioia. Bulegoa, komuna eta aldagela. Errepede ondoan. Leku onean kokatua.</p>	<p> C.E.E.: G. 179.000€</p> <p>DURANGO FRAY JUAN DE ZUMARRAGA: 49,80m2. Egongela, sukalde jantzia, logela eta komuna duxarekin. Ur beroak eta berogailuak gas naturalarekin funtzionatzen dute. Egoera onean. Etxe osoak kanpora ematen du. Argitsua. 0 kotan igogailua duen eraikina. ITE-a pasatutakoa 2025. urtean. Garajea erosteko aukerarekin.</p> <p> C.E.E.:E. 198.000€</p> <p>DURANGO ANTZO ESTEGIZ: 60,62m2. Egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna duxarekin. Balkoia. Egoera onean baina hobekuntzak behar ditu. Ur berorako termo elektrikoa du. Etxe osoak kanpora ematen du. Argitsua.</p> <p> C.E.E.: G. 280.000€.</p> <p>DURANGO ZEHARKALEA: 130m2. Halla, egongela, sukalde jantzia, 5 logela eta 2 komun duxarekin. Egoera onean. Ur beroak eta berohailuak gas naturalarekin funtzionatzen dute. Etxe erdiak kanpora ematen du. Zerbitzuzugueetatik gertu. Garaje bat edo bi erosteko aukerarekin + 18.000 € bakoitza.</p> <p> C. E. E.: E. 148.000€.</p> <p>DURANGO SAN FAUSTO: 47,66m2. Egongela-sukaldea (jantzia), jangela, 2 logela eta komuna duxarekin. Etxe osoak kanpora ematen du. Argitsua. Zonalde berdez inguratuta. Aparkatzeko erraztazuna. ITE-a pasatutakoa</p> <p> BERRIZ AGIRRE LEHENDAKARIAEN PASEALEKUA: 85m2. Halla, egongela, sukalde jantzia handia, 3 logela eta komuna berriztatua duxarekin. Balkoia. Egoera onean. Etxe osoak kanpora ematen du (ipar-ekialde-mendebaldea) Argitsua. Zonalde berdez inguratuta. Teilatua eta fatxada eraberritua (SATE) eta duela gutxi instalatu den igogailua du.</p>	<p>DURANGO ANDRA MARI: 3 logela, sukaldea, jangela, egongela eta 2 komun. 240.000 € / E.E.Z=E igogailu obra erosleen gain izanez gero, saltzaileen gain izanez gero 270.000 €.</p> <p>BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. 350.000 € / E.E.Z=F</p> <p>E.BUSTINTZA KIRIKIÑO KALEA: 2 logela, sukalde-egongela eta komuna. 150.000 € E.E.Z=G</p> <p>GOIENKALE KALEA: Logela, sukaldea egongelarekin eta komuna. Igogailua. 160.000 € / E.E.Z=F</p> <p>SAN INAZIO AUZUNEA: 2 logela, sukalde-egongela eta 2 komun. Etxebizitza berria. 280.000 € / E.E.Z=A</p> <p>ZUMAR PARKEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. 2 terraza. Igogailua. Garajea eta trasteleku. 400.000 € / E.E.Z=E</p> <p>ABADIÑO DENDARIKOA: Zaharbertitzeko dagoen eraikina. Beheko solairua eta 3 pisuko altuera. 215.000 €.</p> <p>TXINURRISOLO KALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Igogailua. 180.000 € / E.E.Z=E</p> <p>ATXONDO ARTEKALEA, 13: Konpontzeko baserria lursailarekin. 300.000 €.</p> <p>BERRIZ MURGOITIO AUZOA: Berreraikitako baserria lurzorua. LEHEN 280.000 € / ORAIN 250.000 €</p> <p>EITUA: Berreraikitako baserria lursailarekin. LEHEN 350.000 € ORAIN 330.000 €</p> <p>GARAI MOMOTIO AUZOA: Etxebizitza eraikitzeko lursailak. Aukera ezberdinak.</p> <p>IURRETA ZUBIAURRE: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. 198.000 € / E.E.Z=F</p> <p>GARAJEAK SALGAI / ALOKATZEKO DURANGON SALGAI ALLUITZ: Garaje itxia. 24.000 €.</p> <p>KURUTZIAGA: garajea. 18.000 €.</p> <p>KURUTZIAGA: Garaje itxia 22.000 €.</p> <p>MADALENOSTE: Garaje itxia eta trasteleku. 42.000 €.</p> <p>DURANGON ALOKAGAI MENDIZABAL: Garaje itxia. 75 €.</p> <p>MURUETATORRE: Garajea. 75 € / hilean.</p> <p>ANTSO EZTEGIZ: 45 € / hilean. Motorrentzat egokia.</p> <p>PLATERUEN PLAZA: Garajea, 75 € / hilean.</p> <p>TRONPERRI KALEA: Garajea, 75 € / hilean. Beste aukera batzuk bulegoan galdetu.</p> <p>LOKALAK ETA PABILIOIAK SALGAI / ALOKATZEKO DURANGON SALGAI ANDRA MARI KALEA: 76 m2-ko lokala. Salgai: 90.000 € / Alokagai: 800 € hilean / E.E.Z=E</p> <p>BARANDIARAN KALEA: 50 m2-ko lokala. 800 € hilean / E.E.Z=Bidean.</p> <p>IBAIZABAL AUZUNEA: 60 m2-ko lokala. 240.000 € / E.E.Z=E</p> <p>KOMENTU KALEA: 30m2-ko lokala guztiz berriztua. 60.000 € / E.E.Z=F</p> <p>ZABALE KALEA: 50 m2-ko lokala. 60.000 € /</p>

Soloa



MAITE EUBA
AREITIOAURTENA

Landuta dagoen edo lantzeko modukoa den lur-eremua da, laboreak (garia, artoa, etab.) hazteko erabiltzen dena. Soroa edo soloaren definizio bat dugu aurrekoa. Ez da bakarria baina. Bakoitzak bere soloa eduki lezake halantxe gura izanez gero.

Nire soloa lagunartea, familia batzeko lekua da. Porruak, piperrak eta tomateaz gain, giroa ondo ereinez gero, uzta ederra eta urte osorako batzea ahalbidetuko duen soloa.

Lehen ez zitzaidan gustatzen solara joatea derrigorrez amak aginduta ez bazen. Ez zen nire aukera. Orain, ostera, neuk aukeratu dut nire soloa egitea. Eta orain bai, gura dut neure soloa egin nik aukeratutako ingurumariarekin.

Nire soloa disfrutatzeke da. Gura duenak gura duenean egiten du; erein, landatu, zaindu, batu... NIRE soloa GURE soloa egin da: han batzen gara gure kontuak eta gure gorabeherak partekatzeke. Batak bestea gobernatzeke, zaintzeke. Ortuariak ere zaintzen ditugu, baina aitzakia baino ez da. Horren gaitetik geure ardura eta zaintza daude. Gure arnagunea da, zelan gauden jakiteko modua aurkitu dugu gure soloan.

Soloa nahi duzun lekuan sortu dezakezu; ez da zertan baserri inguruan izan. Zure soloa zuri ondoen datorkizun eremuan erai-ki zenezake, baina beti on egingo dizun inguruaz hornituta.

Banoa solora!

"Berba eta laztan asko eginda sortzen da artzainaren eta txakurraren arteko lotura"

JOSE ANGEL AZKORBEBEITIA AGIRRE ARTZAINA

Aitziber Basauri ABADIÑO

Jose Angel Azkorbebeitiak (Abadiño, 1951) 30 urte baino gehiago daramatza ardi txakur txapelketetan parte hartzen. Sagasta auzoan 20 ardiko artaldean du eta egunero joaten da ardiei jaten ematera eta bildotsak zaintzera. Aldi berean, *Lutxi* txakurragaz lan egiteko aprobetxatzen du. Ekainean Alluitz aldera bidaliko ditu ardiak, abendura arte. Aurreragorako utzitako sei bildots Sagastan utziko ditu.

Zer eraman zintuen ardi txakur mundura? Betidanik datorkizun afizioa da ala gerora sorturikoa?

Beti izan dut afizioa. Aita artzaina zen eta 13 urteagaz banituen nire ardurak artaldeagaz. Gero neure kontura ipini nituen ardiak baserrian, eta ardi txakur txapelketetan hasi nintzen. Anaia epaimahaiko kidea zen Gerediaga elkarteak antolatutako Euskal Herriko Artzain Txakur Txapelketan, eta hari jarraituta hasi nintzen. Baserria utzi genuenean ardiak ere kendu genituen, baina txapelketetan jarraitu nuen. Gerora, jubilatutako ondoren, semeak orain dudan artaldean ekarri zidan, entretenimendurako eta txakurragaz entrenatzeko.

Zelan prestatzen dituzu txakurrak txapelketetan lehiatzeko?

Egunero lan egin behar da txakurragaz. Orduak sartu behar dira beragaz, aurrera eta atzera kilometroak egin. Era berean, txakurrari berak egin gura duena egiten ez uzten ahalegindu behar da, eta hori gatxa da. Ar-



Jose Angel Azkorbebeitia Abadiñoako Sagasta auzoan duen artaldeagaz.

tzainak gura duena eta gura duen eran egin behar du txakurra, baina beti ez du jaramonik egiten, jakina.

Artzaintza afizioa ala bizitzeko modu bat da zuretzat?

Gaur egun, afizioa. Baina sarritan esan dut 18-20 urte banitu eta aukera banu ardiak ipiniko nituzkeela, bizitzeko modu lez. Badakit ez dena erraza, baina egingo nuke ahalegina. Lasaitasun handia eta naturagaz bat egiteko aukera ematen dizkit. **Bizkaiko eta Euskal Herriko ardi txakur txapelketetan ikusi zaitugu.**

Motzean

Ardi txakurrak derrigor behar du...

Ardiekin jarduteko afizioa.

Aginduetarako ahotsa ala txistua?

Biak.

Lehiatzeko plazarik onena?

Euskal Herriko Artzain Txakur Txapelketa.

Entrenatzea ala sena?

Sena lehenen, baina entrenatzea ezinbestekoa da.

Zelan sortzen da artzainaren eta txakurraren arteko lotura?

Berba eta laztan asko eginda. **Baduzu gogoan momentu berezirik?** Ez. Ondo joan zait txakurrekin. Bizkaian oso txakur onak daude eta txapelik lortu ez dugun arren aurre-aurrean ibili gara. Birritan parte hartu dut Euskal Herriko Artzain Txakur Txapelketan, eta behin nazioartekoan. Herrialde Katalanetako, Frantziako eta Euskal Herriko artzainek eta txakurrek parte hartzen dute azken horretan. Horra heldu egin behar da eta poz handia eman dit han egoteak.

Euskal Herriko Artzain Txakur Txapelketa Antolatzaileen Elkarte (EHATE) kidea zara eta arrazaren hazlea. Euskal ardi txakurra babestea duzue helburu?

Ardi txakurra bultzatzen lan egiten dugu. Artzainei erraztasunak ematen dizkiegu txakurrak lortzen, haiekin lan egin dezaten ardiak eta ganadua gobernatzeko. Euskal ardi txakurrak berezko abildadeak ditu artzaintzarako, eta aprobetxatu egin behar dira.

Badator belaunaldi berririk artzaintzan eta txapelketetan aritzeko?

Bai, badator artzain gazteen belaunaldi bat. Eta txakur txapelketetan ere badabilza batzuk. Hala ere, beteranoen aurrean apur bat kikildu egiten direla diote. Artzain eta euskal ardi txakur hasiberrientzat txapelketa edo saioak antolatu gura ditugu aurten.

Baduzu gomendiorik?

Plazagizona edo plazandrea izatea. Txapelketan lasaitasuna mantentzea oso garrantzitsua da, eta aginduak etxean egiten dugun moduan ematea.

Erretiratzea pentsatu duzu?

Txakurrek jarraitzen didaten bitartean jarraituko dut.



PEFC ziurtagiria
Produktu hau
kontrolatutako
iturrietako materialez
egina dago, birziklatua
da eta Baso Kudeaketa
Iraultzailearen
ziurtagiria dauka
www.pefc.es

anboto



SAN ROKE BARRIA II

Eraikin berria bizi-kalitate berarekin Durangon.

2 eta 3 logelako 47 etxebizitza berri, San Roke Barria II. Sukaldea guztiz hornitua eta armairuak gela bakoitzean.



GARAJEA



TRASTELEKUA



GIMNASIOA



RELAX GUNEA

946 46 20 41 sukia.com

SALMENTA BULEGOA: Astxiki kalea, 1. Durango

sukia
Zure etxean zaudu. Estás en tu casa